




Izena eta izana ezbaian gidaren xehetasunak azaldu dizkigu Saia Iraola leitzarrak. ▶15



Gogora institutuak Memoriaren Plaza zabalduko du Aretan, hilaren 13tik 19ra. ▶22-23

hiruka

Uribe Kostako astekaria



88. zenbakia

2017ko
martxoaren 9tik
martxoaren 15era arte

Eguneroko borroka



Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarriak datozen egunotan ere entzungo dira.

KULTURA ALBUMA

Aratustekak, iruditan

Erandio, Leioa eta Getxoko mozorroak, adibide legez. ▶16-17



Mozorroak janzten azkenengoak izango dira plentziarrak; zapatuan izango dira bertako aratustekak. ▶9

Urdulizko Udalak 18 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu. Horien arteko 13 milioi inbertsioetarako izango dira. ▶10

XII.STOCK EUSKADI

BILBAO EXHIBITION CENTRE

MARTXOAK 10,11,12
11:00 - 21:00

LEHEN MAILAKO MARKAK
BEHERAPEN HANDIEKIN
-%80ko BEHERAPENAK

MODA BITXIGINTZA OSAGARRIAK KIROLA ETXEKOAK OSASUNA EGUZKI BETAURREKOAK ETA ASKOZ GEHIAGO...

ZOKZETA 3.000€

WWW.STOCKEUSKADI.COM

Logos: Calvin Klein, BILABONG, Puma, adidas, new balance, DIESEL, carhartt, CARRERA, KANGAROO, KANGAROO, KANGAROO

Kristalezko sabaiak apurto gura dituzte parekidetasunera bidean

Martxoaren 8aren harira, hainbat ekitaldi prestatu dituzte udalerriko elkarteek eta Getxoko Udalak.

Martxoaren 8a igaro den arren, emakumeen aldarririk entzungo dira egunotan ere udalerriko auzo denetan. «Kristalezko sabaiak apurto ditzagun. Berdintasunera igoz» da egiteko horretarako Udalak aukeratu-tako goiburua. Azaldu duenez, horren helburua da emakumeek erantzukizun-lanpostuetara heltzeko eta profesionalki garatu ahal izateko topatzen dituzten oztopoen inguruan sentsibilizatzea. Horretarako, hainbat berbal-di eta ikuskizun egongo dira aukeran egunotan. Keltse Eiguren Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du Udalak adin desberdineko pertsonentzako jarduerak antolatu dituela, «bere helburu estrategikoen artean berdintasunezko gizartea lortzeko lan egiten segitzea baitago, non pertsona guztiok eskubide



Domeka honetan, hilaren 12an, mugimendu feministako kideakaz kafe-tertulia egongo da.

guztiak eduki ditzagun. Horregatik antolatutako jardueretan parte hartzeko animatu nahi ditu herritarrak». Horrez gainera, datozen egunotan, jarduera ugari antolatu dituzte Getxoko emakumeen elkarteek ere (Gizatiar, Bilgune Feminista, Itzubaltzetako Emakumeon

Asanblada, Mujeres con Voz, Haziak, eta abarrek); besteak beste: eguenean, hilaren 9an, Haziak talde feminista gazteak deitutako «maniFESTAZioa», Algortako Telletxetik abiatuta; eta domekan, hilaren 12an, Algortako San Nikolas plazan izango den kafe-tertulia

mugimendu feministako kideakaz. Hilaren 23an, gainera, «Gizakien salerosketaren biktimak diren emakumeak, emakume errefuxiatuak. Nazioarteko babesaren erronkak» berbaldea egongo da Itzubaltzeta/Romoko San Jose elizan, 18:15etik aurrera. Horretarako, bertan izango da CEAR Euskadi taldeko Verónica Álvarez García.

Askotariko kafe-tertuliak

Hilabete honetan egingo diren berbal-di eta mobilizazio guztiez gainera, Mujeres con Voz elkarteak hainbat kafe-tertulia egingo ditu. Daborduko feminismo islamikoaz eta feminismo beltzaz berba egiteko aukerak eskaini dituzte, baita Afrikako emakumeen nondik norakoak ezagutzeko aukera ere. Hala ere, oraindino ere eztabaidatzeko ekimenak eskainiko dituzte; hurrengo saioa martxoaren 11n izango da. Horretan, emakume musulmanak izango dituzte berbabide. Hilaren amaieran, berriaz, Guatemalako egoeraren inguruan berba egiteko aukera izango dute, martxoaren 31n, hain zuzen ere. ◀

info+: www.getxo.eus

Autobus transfobia deitoratu du Getxoko Udalak

Hazte Oir elkarte ultrakatolikoak transexualitate-egoeran daudenen kontra martxan ipinitako kanpaina errefusatu du Imanol Landa alkateak. Ekimen horrek espainiar Estatuko hainbat hiri bisitatzea aurreikusita zuen, autobus baten bidez egin gura zuten, sexu-askotarikotasunaren kontrako mezuak idatzita zeroatzala. Halere, Ma-

drilgo epaitegiak hori geldiarazi eta aurrera jarraitzeko debekua ezarri zion. Ostera, elkarteak mezua moldatu eta autokarabana batez berrekin dio bideari. Getxora hilaren 10ean etortzea iragarri zuten. Gobernu-taldeak aztertuko du udalerritik pasatzeko eduki dezakeen asmoa ekiditeko modua, dagozkion eskumenen barruan. ◀



Fadurako zubi berria atontzen dabil URA egunotan

Uraren Euskal Agentzia (URA) Algortako Fadurako zubi berriari zerbitzuak birjartzen eta ingurua atontzen dabil egun hauetan. Gobela ibaiaren ur-gordaldiei aurre egiteko egokitzapen hidraulikoa amaitu dute; hala, oraintsu, URAk hainbat lan abiatu ditu: ur-hornidurarako hodi bat ipini, zubiaren ingurua atontdu, ibaiertzetan landatu eta ertzetako bideak egokitu. Zubi berriak alde aurretik botatuko pasabidea ordezkatzeko; 18 metroko luzera eta 13 metroko zabalera du. Autoentzako 5 metroko bidea, oinezkoentzako 2,5 metro-

ko espaloi bi eta 3 metroko bidegorria dauzka. Ibaiko eremu horren egokitze hidraulikoa 775 metroan egin dute, uretan gora, kiroldegiko zubitik Salsiduraino. Lanak apirilaren amaiera aldera bukatzea aurreikusi dute. Hala, guztira, zazpi zubi eta bi pasabideren ordezkatzeko osatuko da, Errekagane parean dagoen Cristóbal Valdéseko hustubidetik Berangokoraino tartean: Lexarreta, Jolaseta, Salsidu, Leioa, Gobelako metro-geralekua, Villa de Plentzia eta Fadurako zubiak, eta Fadura eta Carmengo oinezkoentzako bi pasabideak, beren-beregi. ◀

Hirurogei lagun batu dira zurrumurruren aurka

Algortako Fadura kiroldegian egindako III. In Motion Zurrumurrurik Ez Akzio Topaketan 60 bat lagunek parte hartu zuten. Partaideen erdiak udalerriko Zurrumurrurik Ez Estrategiako kideak izan dira; gainontzekoak, EAEko eta espainiar estatuko beste udalerririk batzuetatik etorritakoak. Heziketarako, hausnarketarako eta bizikidetzarako ekimena izan da topaketa. ◀



GetxoKlab ekimena «ondo» balioetsi dute

Guztira, 10 lagunek parte hartu dute Getxolanek bultzatutako programan; hilabete hasieran amaitu zen.

Udalerriko 10 lagunek amaitu dute GetxoKlab programa. Getxorentzat estrategikoak diren alorretan ekintzailetza-proiektu hauek egin dituzte: Kultura-sormena, Osasuna-kirola-ongizatea, eta eremu horiei lotutako turismoa. Ekimena Getxolanek bultzatu du, eta otsailaren 10ean amaitu zen. Bost hilabetez egon dira parte-hartzaileak murgilduta gaitasun ekintzaileak eta profesionalak optimizatzeko jardueretan. Azken saioan protagonistek eurek bizitako esperientzia eta ondorioak azaldu zizkieten bertaratu zirenei, bai ekimenagaz zerikusia izan duten pertsoneri zein GetxoKlaben talde nagusiak bizi izan dituen espe-



rirentziak eta ikaskuntzak lehen eskutik ezagutu gura izan dituztenei. Parte-hartzaileek modu «proaktiboan» lan egin izanaren garrantzia nabarmendu zuten, eta euren esperientzia pilotua erabili zuten baliabide errealean batean ikasteko modu baten adibidetzat. ◀

Gainbalioen zerga berrikustea eskatu dio Ciudadanos alderdiak Getxoko Udalari

Gainbalioen harira modu desegokian ingresatutako diruaren erreklamazioak egin ahal izateko neurriak har ditzala eskatu dio Ciudadanos alderdiak Udalari. Gainbalioen udal-zergak konstituzioaren kontrakoak direla ebatsi du oraintsu Espainiako Auzitegi Konstituzionalak. «Higiezinen harira jasotako galerak irabaziak balira bezala ordaindu behar izatea guztiz inkonstituzionala da», deitoratu du Santiago Sainz Ciudadanoseko zinegotziak. Erreklamazioak egiteko neurriak eskatzeaz gainera, alderdi larriak luzamendua eskatu du, zeintzuk kasutan ordaindu behar diren eta zeinetan ez diren egin behar jakin arte. Era berean, foru-araudian ere neurriak har ditzala eskatuko du Bizkaiko Foru Aldundian, «itxaron ezin duen neurri baten berrikusketa da hau». ◀

Ibarbengoa inguruko jabeek euren lurak utzi behar izan zituzten martxoaren 1ean

Tosu Betirako taldeko kideek jakinarazi dutenez, trenbidearekiko paralelo doazen lurak martxoaren 1ean libratzeko agindua jaso zuten hainbat auzokidek. Hori dela eta, laster beharginak Tosu landara gertura zitezkeelakoan, gosari herrikoa egin zuten egun horretan, goizeko 08:00etan. Euren ideia Geocisako jabeari (Florentino Pérez) eta langileei harrera egitea izan zen; osterara, ez zen inor agertu. Dozenaka lagun bertaratu ziren martxoaren 1ean Ormaza estratara zubi azpiraino; trajez jantzita agertu ziren asko, Florentino Fernándezi «ondoetorria» emateko. «Asko pozten gara behingoz hain beharrezkoa den parkinga eraikitzeke obrak hastea», adierazi zuten, ironikoki. Ondoren, kalerik kale ibili ziren Algortan, euren aldarrikapenak helarazten eta entzun zitezten. ◀



Memoriaren Plaza
Getxon

Areetako Geltokiko plazan
martxoaren 13tik 19ra

Gogorza

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen Institutua



Informazio gehiagotarako:

944 032 840
688 670 177

Getxo

Gazteentzako lau tailer antolatu dituzte

Ikastaroak apiriletik ekainera bitartean izango dira, euskaraz edo gaztelaniaz.

Apirilean, maiatzean eta ekainean, gazte getxoztarrek hainbat ikastarogaz eta tailerregaz gozatzeko aukera izango dute. Izan ere, Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzuak bere jardueren eskaintza berria plazaratu du. Eskaintza horren barruan, honako ekintza hauek aurki-

tuko ditugu: 3D bidezko inprimaketa, robotika, surfa eta elikagaiak manipulatzeke agiria goiz batean lortzeko aukera. Jarduera guztiak zabalik daude aniztasun funtzionala duten gazteentzat. Kasu horretan, izena emateko unean zehaztu edo adierazi beharko dute eskaera.

Lehenengoa, 3D inprimaketan trebatzeko ikastaroa izango da, apirilaren 20tik ekainaren 1era arte, Getxo Elkartegian. Tailer horiek 11-17 urte eta 18-30 urte arteko gizon-emakumei zuzenduta daude, gaztelaniaz. Apirilaren

24an, ostera, elikagaiak manipulatzeke agiria lortzeko tailerra egingo dute, Gaztelekuan; saioa goizez izango da, gaztelaniaz. Maiatzaren 16an eta 17an, robotikan murgiltzeko ikastaroa egingo dute Gaztelekuan, euskaraz. Tailerrok 12 eta 17 urte arteko neska-mutiei zuzenduta daude, eta 7 misio bete beharko dituzte, robotika erabilia. Azkenik, uda heltzeaz dagoela aprobetxatuz, surfean trebatzeko ikastaroa egingo dute ekainaren 5etik 9ra. Horretan, itsasoa ezagutu eta berau errespetatzen ikasiko dute 8 eta 15 urte arteko gazteek. Ikastaroa arrastiz izango da, 05:30etik 07:30era, Barinatxe hondartzan. Saioak euskaraz izango dira. Ikastaroetan izena eman daiteke e-mail bidez edo telefonoz. ◀

info+: gaztebulegoa@getxo.eus / 944 660 353

Egitaraua

3D inprimaketa

18:00-20:00

Apirilaren 20tik ekainaren 1era, Getxo Elkartegian. Gaztelaniaz. 11-17 urte eta 18-30 urte bitartekoei begirakoa.

Elikagaiak manipulatzea

10:00-13:00

Apirilak 24, Gaztelekuan. Gaztelaniaz. 18-30 urte bitartekoei begirakoa.

Robotika eta Lego

17:30-19:30

Maiatzak 16 eta 17, Gaztelekuan. Euskaraz. 12-17 urte bitartekoei begirakoa.

Surfa

17:30-19:30

Ekainaren 5etik 9ra, Barinatxe hondartzan. Euskaraz.

8-15 urte bitartekoei begirakoa.

Jaietarako bandera diseinatzeke lehiaketa, martxan

Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jai-batzordeak festetarako banderaren diseinu-lehiaketa antolatu du. Proposamenak apirilaren 21era arte helarazi ahal izango zaizkio jai-batzordeari. Parte hartu ahal izateko Itzubaltzeta/Romon edo Pinuetan bizitzea beharrezkoa da; hala ere, jakinarazi dutenez, auzo horietan bizi ez baina «normalean» bertan egoten direnek ere parte hartu ahal izango dute. Banderaren diseinua DIN A4 formatuan osatzea beharrezkoa da, eta 3 kolorezkoa, gehienez; hondoa gorria, nahitaez. Gainera, diseinuan Itzubaltzeta/Romo eta Pinueta berbak erraz identifikatzeko beharra dago. Diseinu irabazlea herri-bozketaren bitartez aukeratu da, apirilaren 30ean. ◀

Askotariko izakinak erosteko aukera egongo da egunotan

Udalerriko 84 dendak parte hartuko dute aste-akabu honetan izango den Izakinen Amaierako Merkatuan. Hala, hilaren 9tik 11ra bitartean, denda horiek prezio merkeetan eskainiko dituzte hainbat produktu, denak udagoien-neguko denboraldikoak. Aurreko edizioen arrakasta dela eta, Udalak ekimen hori bultzatu du berriro ere, udalerriko komertzioak sustatzeko eta sektore komertzialak erakuts dezakeena zabaltzeko guran. Eguraldia lagun izan ezean, azoka hilaren 13ra eta 14ra luzatzea aurreikusitako dute. Hala, egun horietan Algortako eta Areetako dendak kanpoaldean, denetarik egongo da aukeran: modako artikuluak, kirola egitekoak, oinetakoak, liburuak... ◀

LASTER ERAIKIKO DIRA
PRÓXIMA CONSTRUCCIÓN
ALGORTA (GETXO)
ALANGO KALEAN

36

etxebizitza kostu-prezioan

2, 3 eta 4 logelakoak, garajea eta trastelekua barne; kooperatiba-erregimenean.

3 desde **320.600** €-tik aurrera

D/L

4 desde **357.500** €-tik aurrera

D/L

GESTIOA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

alangoeta.com
94 460 95 53
Telletxe Kalea, 2, C (Algorta)

FINANTZIAZIOA:

9/10/11

MARTXOA
MARZO
GETXO

IZAKINEN AMAIERAKO MERKATUA • MERCADO DE SALDOS

LOS COMERCIOS DE GETXO SACAN SUS PRODUCTOS A LA CALLE

GETXOKO DENDEK KALERA ATERAKO DITUZTE BERE PRODUKTUAK



EURIA EGINEZ GERO | EN CASO DE LLUVIA

Azoka **13ra eta 14ra** luzatuko litzateke

El mercado se prolongará los días **13 y 14** de marzo



PARTE-HARTZAILEAK
PARTICIPANTES

www.getxo.eus/getxolan



Getxo
bizi ezazu



Erandio

Gazte-ikastaroak martxan ipini ditu Gazte Zerbitzuak daborduko

Bederatzi ikastaroren inskripzioak bete ahal izango dira egunotan.

Gazteentzako ia 50 ikastaro antolatuta dituzte Erandioko Gazteria Sailak, Berdintasun Zerbitzuak eta Txorierriko Mankomunitateak; gehienak uda aldera egingo badira ere, egunotan 9 ikastaro eta tailerretan izena eman daiteke.

Emakumeen Jabekuntza Eskolarenak izango dira inskripzioa betetzeko lehenengo tailerrak, martxoaren 13ra arte: «Nosotras, vosotros, ellos y ellas» hizkuntza ez sexistaren tailerra emanango du Irantzu Varelak martxoaren 17an eta 18an, Josu Murueta kultur etxean; ostean, apirilaren 25etik ekainaren 3ra, Itziar Gandiak emozioak kudeatzeko tailerra eskainiko du Altzagako Bekoa



Funky-dantzaren tailerra Altzagan izango da, martxoaren 29tik ekainaren 7ra. MICHAEL ZITTEL

ikastetxean. Modu berean, bost dira martxoaren 15a epemuga duten ikastaroak: *funky*-dantza, mintzapraktika ingelesez, emozioen inteligentzia, ogi-

tailerra eta puntu-lanak. Hilaren 17ra arte, izena eman daiteke eskulanetakoan eta loreontzi-ortukoan. ◀

info+: gazteria@erandio.eus / 609 082 646

Iraupen luzeko ikastaroak gazte eta langabetuentzat, Behargintzan

Erandioko Udalak prestakuntza-eskaintza berri bi zabaldu ditu bertoko herritarrek udalerrian lan egin ahal izan dezaten. Alde batetik, zenbait ikastaro prestatu dituzte 45 urtez gorako langabetuentzat eta langabekian luze egon diren edo bazterketa-ariskuan dauden 31 urtez gorakoentzat. Gainera, Erandio udalerriko enplegu-planerako hautaketa egitean, kontuan hartuko da ikastaroetan parte hartu izana. Hala, «enplegarritasuna hobetzearen alde egiten da, gizarteratze-prozesu gisa», Udalak adierazitakoaren arabera. Bestetik, Erandioko Udalak beste ikastaro-multzo bat antolatu du «lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten» 30 urtez azpikoentzat. Lekuen erdia emakumeentzat izango da. Bizkaiko Foru Aldundiak hartuko du bere gain ikastaro denen kostua. ◀

info+: 944 175 616 / behargintza@erandio.eus

Quirón ospitaleko beharginen beste greba bat, aztergai

Bariku honetan, hilaren 10ean, mahaiaren bueltan batuko dira Erandioko Quirón ospitale pribatu sindikatuak eta enpresako ordezkariak. Batzar horren emaitzaren arabera, gerta liteke sindikatuak datoren eguaztenerako, martxoaren 15erako, deitutako greba-eguna berrestea ala bertan behera uztea. Halere, ez da lar baikorra Langileen Batzordea; ELA, CCOO eta Satse sindikatuak osatzen dute. Pasa den astelehenean egin zuten lehenengo greba-deialdia, «ia erabateko segimenduagaz», jakinarazi dutenez. Orain dela bost hilabete ekin zioten negoziatzeari, hitzarmen propioa aldarri nagusizat jota. Diotenez,



Berrehundik gora langile dira. © SATSE

Erandiokoa Espainiako Estatu ospitale pribatu bakarra da beharginak Langileen Estatutuaren arabera arautzen dituen. Modu berean, azken hiru urteetan «soldatak izoztuta» izan dituztela salatatu du CCOOk. ◀

Martxoaren 8ko azken jarduerak egunotan izango dira

Emakumeen Nazioarteko Egunaren Eharira, egitarau zabala antolatu zuten Erandioko Berdintasun Sailak eta emakumeen elkarteek. Oraindino, zenbait hitzordu geratzen dira. Altzagako elkarteak bazkaria eta dantzaldia izango ditu ostegunean, 14:30etik aurrera, Azoka Zaharrean, aurretik izena eman duten emakumeentzat. Barikuan, ostera, emakumeen jaia egingo dute leku berean, 18:00etatik aurrera; luncha eta opariak izango dira, besteak beste. Astrabudian, barikuan egingo dute bazkaria, Extremadurako Etxean. Bestalde, hilaren 17an eta 18an, Emakumeen Jabekuntza Eskolaren tailer bat izango da. ◀

Itsasadarreko lurraz jabetzeko «presarik ez» dauka Udalak

Bilbo eta Getxo bitartean bidegorri luze bat eraiki dezaten eskatzeko zenbait martxa zikloturista egin dira azken hilabeteetan. Portu Agintaritzak prest agertu da Itsasadarreko lur horiek lau udalerriren esku uzteko: Bilbo, Erandio, Leioa eta Getxo. Halere, bidegorri hori egingo den ez dago argi, batez ere Erandioko zatian. Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziaren arabera, hiru kilometro baino gehiago dira Erandioren dagozkionak. Horregatik «prudentzia» eskatu du: «negoziazioetan itzarongo dugu besteak lortzen dutena jakiteko». Joseba Goikouria alkateak azaldu duenez, Aldundiak «ez du sartu gura» bidegorri horren operazioan. ◀

prentsa · aldizkariak

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

txakoli
mota
ganeTx
txakolina

Leloa-Unbe errepeidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

portu zaharra bar

Portu Zaharra Ibilua 35
48951 Algorta-Getxo
Tl. 94 463 20 33
portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!

Leioa

Denon artean, ikastetxeetan

Eskolan sendien partaidetza areagotzeko egitasmoa martxan ipini du Leioako Udalak, udalerrian dauden Lehen Hezkuntzako bost ikastetxeetan.



Ikasturteko lehen hiruhilekoan lortutako emaitzakaz «pozik» daude. © LEIOAKO UDALA

Udal-iturrien arabera, guztira ia ehun familiek parte hartu dute Denon Artean izeneko programan, 2016-2017 ikasturteko lehen hiruhilekoan. Sendien eta eskola-komunitatearen arteko harremanak sendotzea da egitasmoaren helburua. Hala, Denon Artean programa martxan dago udalerriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan: Altzagan, Artatza-Pinuetan, Lamiakon, San Bartolomen eta Txomin Arestin. Leioako Udalaren Hezkuntza eta Herritarren Partaidetza Arloak sustatu du, eta Ongizatea elkarteak koordinatzen du. Ikastetxeetako langileez eta irakasleez gainera, gurasoak dira adin txikikoen eskola-bizitzaren «ezinbesteko oinarriak», udal leioaztarreko iturriek diotenez. Euren berbetan, «umeen garapen integrala lortzea da guztien helburua». Ildo berean, irakasleen eta gurasoen eginkizunak eta funtzioak zeintzuk di-

ren bereiztea «garrantzitsua» dela uste dute Denon Artean egitasmoaren sustatzaileek. «Lehenengo hiruhileko honetan, konstruktiboak izan dira sortu diren eztabaidak. Hala ere, hitz egiteko gai asko geratzen dira. Proposamenak elkartrukutzen eta adostu ziren ekintzak garatzen jarraitu nahi dugu», azaldu dute. Leioako Lehen Hezkuntzako bost ikastetxeetan, «handia» izan da amen eta aiten parte-hartzea. Egitasmoa arduradunek emandako datuen arabera, banakako topaketetan ia ehun senidek parte hartu zuten; guraso denentzat antolatutako deialdietan, berriz, 20 lagun egon ziren, batez beste. San Bartolome eta Lamiako ikastetxeetan egin ziren guztiontzako bilkurak. Ikasturteko bigarren hiruhilekoan, elkarren arteko harremanetarako sortutako ekimenak lantzen jarraituko dute; eta sor daitezkeen ekintza berriak ere kontuan hartuko dituzte. ◀

Hirigintza-izapideak egitea errazagoa da leioaztarrentzat

Hirigintza-gestioak modu errazago batean egiten laguntzeko, *Leioa Hurbil* webgunean hainbat aldaketa egin ditu Udalak. Besteak beste, abenduan karpeta bereziak sortu zituzten gai horri dagokion atalean: obren, jardueren planeamendu-kontsulteren edo alegazioen inguruko izapideak banan-banan kontsulta daitezke atari horretan. Horrez gainera, Eraikinen Inspektzio Teknikoa (EIT) eta obren aurretiazko komunikazioa udal-bulegoetara joan behar izan barik ordaintzeko fitxak eratu dituzte. Herritarren egitekoak errazteaz gainera, modu horretan, «Udalari merkeago» aterako zaio la aitortu dute agintariak. ◀

Ezagutza-azoken datak jakitera eman ditu Herrigunek

Herrigune egitasmoak jakinarazi ditu daborduko hurrengo ezagutzen azoken datak: apirilaren 1ean, maiatzaren 13an eta ekainaren 10ean egingo dituzte. Boulevardeko estalpea erabili ohi dute horretarako. Ezagutzen azoketan, egiten dakitena besteakaz partekatzea eta besteek egiten dakitena ikustea zein ikastea aukeran dute parte hartu gura duten denek; aurretik izena eman daiteke. Horretarako, ekintza-tailerretik pasa daitezke interesa daukatenei; eguazteneko batzen dira, 17:00etatik 20:00etara, Iturriondo kaleko 10. zenbakiko bigarren solairuan, metrotik gertu. ◀

info+: info@herrigune.org / 635 738 931

Saharako, Ukrainako eta Errusiako umeak, bertan udan

Urtero legez, Oporrak Bakean kanpainagaz bat egin du Fath elkarteak. Hala, uztailean eta abuztuan, familia leioaztarrekaz bizitzeko aukera eskainiko diete Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren umei. Egitasmo horren bitartez, neska-mutulei mediku-azterketa eta elikagai egokiak eskaintzen dizkiete. Martxoaren 31ra arte izena eman daiteke. Bestalde, Ukrainako neska-mutlak udan hartu gura dituzten familien kopurua beteta dauka daborduko Chernobileko Umeak elkarteak; hala ere, datorren urteko kanpainen izena ematen hasteko eskatu diete leioaztarrei. Azkenik, Errusiako umezurtzak

Harremanetarako

Fath

656 735 687

leioasaharafath@gmail.com

Chernobileko Umeak

606 533 827

chernobilekoumeak@gmail.com

Bikarte

bikarte@yahoo.es

etxean hartzeko sendi bila dabil oraindino Bikarte elkarteak. Uda honetako kanpainen zein hurrengoan parte hartzeko izena eman daiteke. ◀

Berdintasunagaz lotutako hainbat liburu, Kultur Leioan

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekintza antolatatu ditu Leioako Udalak; horien artean, berdintasunaren gaiagaz lotura daukaten liburuak ikusgai egongo dira, Kultur Leioako liburutegian, bari-ku honetara arte. «Liburu-bilduma horretan, euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako liburuak daude, eta adin guztiei begirakoak. Herritarren esku ipini gura dugu gida hau, balio ez-sexistak eta

hezkidetzak lantzeko helburuagaz», azaldu dute antolatzaileek. Besteak beste, 5 eta 8 urte arteko umeentzako ipuinak daude, 12 urtetik gorako gazteentzako eleberriak; eta helduentzako liburuak, komikiak eta filmak ere bai. Egun berean, *Femenino plural* izenburuko ahozko narrazioa eskainiko du Alabazan taldeko Pedro Ruizek, Kultur Leioan; sarrera, doan. Gaztelaniazko saioa 18:30ean hasiko da. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



IkastolenElkartea

Sopela



Udaletxetik elizarrainoko espaloiak zabalduko lirateke, Zipiriñeko zebraidea moldatzeaz gainera.

Erdigunea, oinezkoen lehentasuneko gune

Denok Batera alderdiak «anabasa» sortuko duela uste du; EH Bilduren ustez, oster, «onuragarria» da, sopoloztar denentzat.

Udal-aurrekontuak aurre-ateratzeko, hitzarmena izenpetu zuten abenduaren akabuan EAJk, PSE-EEK eta EH Bilduk. Azken horiek aurkeztutako 13 zuzenketak aintzat hartu ostean, bo-boa ematean, abstenitu egin ziren koalizioko zinegotziak. Proposamenen artean, Sopolako erdigunean oinezkoen lehentasuna ematea eskatzen zuen EH Bilduk; Denok Batera alderdiak, oster, ez du begi onez ikusten hori gauzatzeko ipinitako 130:000 euroko diru-partida. Euren ustez, «zati bat oinezkoentzat ipintzea ideia ona da; baina, trafikoaren egoera eta beste aukera batzuk kontuan hartu barik egiteak arazo handiak ekarriko dizkigu». Bes-

teak beste, Urdulizko ospitaleak erakarriko duen ibilgailu-kopurua berbabide daukate alde horretakoek. Horregaz lotuta, «trafikoaren aukeren inguruko ikerketa bideragarri eta fidagarri bat» eskatu dio Denok Batera alderdiak Udal-Gobernuari.

EH Bilduk erantzun dienez, «ikerketa bi egin dira egitasmo hau gauzatzeko: aurreko legegintzaldian, alkatetzan geundela, Hiriduna arkitektura-enpresak ikerketa eta proiektua egin zituen; eta, orain, EAJk eskatuta, trafikoari buruzko ikerketa egin du Leber enpresak». Guillermo Vio EH Bilduren bozeramailearen arabera, «hirugarren ikerketa bat egiteak ez dauka zentzurik». Urdulizko ospitaleko sarbideei dagokienez, «errepide horiek foral» direla nabarmendu dute koaliziokoek; horrenbestez, «Aldundiagaz akordioa lortu ezean, Sopolako erdigunea ezin da urteetan autoen menpe egon», bere ustez. Gontzal Herrosilla alkateak ez du adierazpenik egin gura izan, gai horren inguruan. ◀

Udalak «ipinitako trabak» salatu dituzte kuadrillek

Euren ekintzak gauzatzeko orduan, Udalak emandako laguntzari «eskasa» dela iritzi dio Sopolako Kuadrillen Koordinakundeak; lagun-taldeek salatu dutenez, «trabak etengabeak izan dira». Zinegotzi denen aurrean irakurri zuten erakunde horretako ordezkariak euren adierazpena: «gaurkoan gure eskubideak berma daitezen eskatzera gatoz, eta herriko beste gizarte-eragile bezala, gurea dagokiguna eskatzera gatoz», aipatu zuten. Kuadrillen berbetan, «gure helburuak lortzeko beharrezkoa dugu Udalagaz harremanak eraikitzea eta elkarlana bultzatzea. Sopolako Kuadrillen Koordinakundearen gauden ehun bat gazte udalerrikoak gara, eta sopoloztar legez Udalak eskaini behar dizkigun tresna eta baliabideak gu-reak egin gura ditugu».

Gontzal Herrosilla alkateak eran-



Sopolako kuadrillen aldarria, iazko jaietan.

tzun duenez, «urtero legez, askatasunean eta elkartasunean oinarritutako jaiak izateko ari gara lanean, sopoloztar guztiok goza ditzagun jaiak izateko. Orain egun batzuk adierazi nuen moduan, Sopolako Kuadrillen Koordinakundearen beharrak entzuteko konpromisoa hartu du Udalak, eta buru belarri jarraituko dugu lanean jaiak errespetu osoz gara daitezen». ◀

Orange-k zuntz optikoa ipiniko du etxe eta saltokietan

Herrian telekomunikazioak hobetzeko «aurrerapauso garrantzitsu» bat eman du Udalak, agintari sopoloztarrek adierazi dutenez. Orange operadoreak 600.000 euro inguru inbertituko ditu zuntz optikoa herriko 3.400 etxebizitza eta negozio baino gehiagotara hel dadin. «Udalerriko etxebizitza eta negozioen %70ak baino gehiagok merkatuko telekomunikazio finkoen teknologia aurreratuena eskura izango dutela suposatzen du», azaldu dutenez. Proiektua aurten eta datorren urtea bitartean gauzatzeko aurreikusitako dute, eta «horretarako, faktore giltzarria izango da komunitate-tako administratzaileek instalaziorako baimenak ematea», esan dutenez. ◀

Mozorro-lehiaketak umeen artean sari asko banatu ditu

Larrabasterrako Urko kiroldegian Legin zuten aratusteetako mozorro-lehiaketa, otsailaren 26an, domekan. 0 eta 6 urte artekoen artean, Oihan Pérezek irabazi zuen lehenengo saria, Toy Story filmeko *Buddy* pertsonaiaren mozorroagaz. Bestalde, Garazi Lataidek lortu zuen 7 eta 12 urte artekoen saria; antzinako dama baten soinekoa jantzita. 13 urtetik gorakoen artean, berriz, Astrid Espositoren astronauta-mozorroak eragin zuen epaimahaikideen arreta. Azkenik, Las + recortables kuadrillak irabazi zuen talde-saria. Udalerriko saltokietan gastatzeko bonuak jaso zituzten denek. Sariak banatzerakoan, parte-hartzaileen jarrera ere kontuan izan zuten. ◀

ARTOLOZAGA
ANAIK
Tailerrak
Mekanika - Karrozeria - Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.tallerartolozaga.com

BOSCH
Service

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Car Service

hau herzkuntzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutka, s8. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 · www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskulua. ALGORTA · 94 430 76 96



Tximiskeriak!!

AITOR
GARAGARZA CAMBRA
Langilea

Koldo Iturbek esandakoaren harira

A skok kontrakoa pentsatuko badute ere, Getxoko populazioa 83.232tik 78.393ra jaitsi da azken hamar urteotan. Hala ere, agerikoa den legez, etxe kopuruak goraka jarraitzen du. Krisiak krisi, porlanak negozio izaten jarraitzen du batzuentzat, eta beraz, inoiz ez dute ulertuko etxebizitzaren arazoa hutsik dauden etxeak (Getxon 2.023, Etxebizitza Behatokiaren arabera) jendeari prezio eskuragarrietan eskainiz konponduko dela, ez bizitzarik gabeko etxeen segida etenbakoa eraikiz. HAPOaren errebisioari dagokionean, gutako batzuok udalari aukera bat eman eta bertan parte hartu genuen, baina parte hartze lantaldearen erdiak baino gehiagok egin zuen bezala, guk ere planto egin genion. Andra Marin gehiago ez eraikitzearen alde geunden gehienok baina antza, aukera hori «ez zen posible». Ibarbengoako parkingak, udaltxeko Osoko Bilkuran %40aren babesa baino ez duenak, eta bere aurka 1.000 lagun inguru bildu zituenak urtarileko manifestazio anitzean (Getxoberrik, Getxotar guztiok ordaintzen dugun periodikoak, aipatu ere egin ez zuena) hainbat kezka sortu ditu: Ze zentzu dauka tren geltoki batek landa eremu baten? Zergatik ez da derrigorrezkoa den Ingurumen Eragin Txostena egin akuifero ugariko eremu batean? Zergatik da derrigorrezkoa parkinga eraikitzea geltokia zabaltzeko? Zertarako parkingaren inguruan dauden estraten zabalera handitzea? Tosu Betirako elkarteko kideok, eztabaida publikoa antolatze aldera, Udaletxearekin harremanetan jarri ginen joan den ekainean, baina erantzunaren zain gaude oraindik. Gure ustez, demokrazia baten, parkinga nahi dugun edo ez eztabaidatu eta erabakitzea posible izan beharko luke. ◀

*OHARRA: Aitor Gk Tosu Betirako-ri utzitako espazioa.

Plentzia



Mozorrotxeagaz baterra, tostadarik onena ere aukeratuko dute zapatuan.

Mozorrotxeagaz azken aukera

Aratuste tematikoa antolatu dute zapatarako, beste urte batez, kuadrillek eta jai-batzordeak.

A ratusteak ospatuko dituen eskualdeko azkenengo herria da Plentzia. Urtero legez, mozorro jai tematikoa antolatu dute bertako kuadrillek eta Plentziako jai-batzordeak, elkarlanean. Hala, zapatu honetan, hilaren 11n, udalerriko bizilagunek IX. Inauteri Tematikoez gozatzeko aukera izango dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, aurtengo gaia «Libre» izango da. Hartara, goizeko 12:00etatik aurrera, hamaika jardueraz gozatu ahal izango da bertan. ◀

Egitaraua

Martxoak 11, zapatua

11:00 Puzgarriak eta tailerrak, Jai Alai frontoian.

13:00-13:30 Tostada-lehiaketa, Jai Alai frontoian.

13:30-15:00 Triki-poteoa, Izarraitz tabernatik hasita.

15:00 Gazte-bazkaria, Jai Alai frontoian.

16:30 Gazte-jolasak.

18:00 Desfilea, Eliz plazatik frontoiraino, Alde Zaharretik. Ondoren, disko-festa.

19:00 Elektrotzaranga Ttek! taldeagaz, kalerik kale, Plazatxotik hasita.

20:30 Txokolate-banaketa.

21:30 Zezensuzkoa, Plazatxoan.

23:30 Aldats erromeria eta jai, Danontzat gaztetxean.

Mozorroaren gaia, libre.

Berango

Berdintasunaren aldeko bidean

Tximeleta-efektua balitz legez, ekintza txikiakaz berdintasuna lortzeko bidea egin gura du Udalak.

Txinako esaera zaharrak dioten moduan, «tximeleta baten hegale mugimendua munduaren beste muturrean senti daiteke». Horren arabera, egunerokotasunean dabilen indar txiki batek aldaketarako indarra sor dezake. Hori dela eta, Berangoko Udaleko Berdintasun Sailak tximeleta morea aukeratu du ikurtzat. Izan ere, udalerriko auzokide guztien ekintza txikiak, tximeletak balira bezala, berdintasuna «benetakoa eta efektiboa» izatea ahalbide dezakeela irudikatze-

ko. «Tximeletaren efektu horrek eman dio hasiera martxoaren 8aren hari-antolatu diren ekitaldi-programei. Hori ez da hilabete honetara mugatuko, urte osoan beste hainbat jarduerak antolatuko baitira Udaletik, udalerriko elkarteakaz eta norbanakoakaz elkarlanean», azaldu dute arduradunek. Izaskun Zubiaur Berdintasun Saileko arduradunaren arabera, «ekintza txiki askoren batuketak berdintasunaren tornadoa eragin dezake». ◀

info+: www.berango.eu

Bertoko merkataritza-sarea sendotu gura du Plentziako Udalak

Plentzia merkataritza eta zerbitzu gune moduan sendotzea gura du Udalak. Horretarako, Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezi berria ipini du martxan. Hori fase handi bitan banatzen da: alde batetik, merkataritzak duen lehiakortasun-mailaren posizioaren diagnostia eta, bestetik, bertako merkataritza dinamizatu eta sustatzea. Diagnosti fasea aurrera eroan ahal izateko, hurrengo egunetan inkesta bat egingo dute biztanleen artean, eta baita merkataritza eta ostalarien artean ere, 100 inkesta egingo dira plentziarren artean, guztira; beste 100, inguruko herrietan; eta 40, profesionalen artean. ◀

Hilaren hasieran banatuko dute kultura-agenda

Goñi Portalaren kultur agenda banatzeko sistema aldatuko du Udalak, apiriletik aurrera. Azaldu dutenez, orain arte, hilaren 10etik 15era bitartean heltzen zen etxeetara, eta gertatu izan da iragarritako jarduerak batzuk ordu-rako gauzatuta egotea, agenda heldu baino, alegia. Hori jazo ez dadin, hilaren hasieran egingo dute banaketa, datorren hiletik aurrera. Modu berean, jakinarazi dute agenda gutun-azal eta etiketa barik banatuko dutela, «hala diru-kopuru handia aurreztuko dugu materialean eta zigitutan», azaldu du Udalak. Aurreztutako dirua Kultur Etxeko zerbitzu orokorretarako erabiliko dute. Horrez gainera, agenda «ekologikoa» izango dela nabarmendu dute. ◀

Egitaraua

Martxoak 11, zapatua

19:00 Berangoko emakumeen emanaldia, Berango Antzokian. Sarrera, doan.

Martxoak 12, domeka

Berdintasunaren aldeko jai, nagusien etxearen aurreko plazan.

10:30 Martxa, emakumeen elkarteko egoitzatik abiatuta, frontoiraino.

13:00 Adierazpen instituzionala irakurtzea; eta dantzaldia, Trio Maran taldeagaz; hanburgesa eta karolina solidarioak; ume-jolasak.

19:00 *Las mujeres sabias* antzezlan, Berango Antzokian, Txirlora-ACADAE taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Urduliz

Aurrekontuak, onartuta

Udalak ia 18 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu. Horietatik, 13 milioi euro inbertsioetarako dira.

Urdulizko Udalak 17,9 milioi euroko aurrekontuak onartu ditu urte honetarako. Proposamenak EAJren babesaren izan du; EH Bilduk kontra bozkatu zuen, eta DB-TU ez zen osoko bilkurara aurkeztu. Koalizio abertzaleak kritikatu du aurrekontuak Gobernu-taldeak «bakarrik» osatu dituela. Modu berean, deitoratu du inbertsioetarako aurreikusitako 13 milioi euroetatik 900.000 euro «bakarrik» gastatuko direla parte-hartzeko prozesuaren bidez. Joan den hilabetean, auzokideek Udalak proposatutako hainbat proiekturen artean botoa eman ahal izan zuten, zeintzuk egitasmo egitea gurago zuten adierazteko.



Herritarrek hainbat proiekturen artean bozkatu ahal izan dute oraintsu.

Udalak azaldu duenez, 9,5 milioi euro hiri-unitate bi garatzeko izango dira, 1,5 milioi euro transformadore bat erosteko eta 44.000 euro hilerri berria kudeatzeko enpresa kontratatatzeko. Javier Bilbao Urdulizko alkateak nabarmendu du «inguruko udal batek ere ez due-

la hainbeste diru bideratu parte-hartzeko prozesu batera». Horrez gainera, aurreratu du «bai ala bai» egingo den proiektua izango dela metro-geralekuaren goiko aldea urbanizatzearena, hori lurperatu ostean. Lan horretarako 1,3 milioi euro erabiliko dituzte. ◀

Udalekuen izen-ematea aurretik egitea beharrezkoa da

Aurtengo udalekuetan parte hartzeko, aurretik izena ematea beharrezkoa da. Udalekuak ekainaren 26tik uztailaren 21era izango dira, eta txanda bitan banatuko dira. Aurretiaz betetako izen-emateen arabera antolatuko dituzte aurtengo udalekuak. Hori dela eta, antolatzaileek ez dute oraindino informazio zehatzik eman go horren inguruan. Hala ere, Udalak jakinarazi duenez, ahalik eta ume gehienek parte hartzeko ahalegina egingo dute, «baina horrek ez du esan gura bermatuta dagoenik apuntatzen diren ume guztiak onartzea». Izena emateko azkenengo eguna hilaren 17a izango da; horretarako, aukeran daude kultur etxera jotzea edo e-mail bidez egitea. Udalekuok Urdulizen jaio-tako eta 3 eta 5 zein 6 eta 12 urte arteko neska-mutilei zuzenduta daude. ◀

info+: www.urduliz.eu
izena emateko: euskera4@uribekosta.org

Uribe Kosta

Birziklatzeak gutxiago gastatzea dakarrela erakutsi gura dute

Birziklapena sustatzeko kanpaina berria martxan ipini du Ekogunek, Uribe Kostako Mankomunitate Zerbitzuko Iraunkortasun Sailak. «Birziklatu gehiago, gastatu gutxiago» goiburuagaz, ingurumenean onurak eragiteaz gainera, birziklatzeak ekonomikoki aurreztea eragiten duela erakutsi gura du. Ekogunek azaldu duenez, birziklapenari esker, errausketa-plantara eroaten den hondakin-bolumena gutxitzeaz gainera, hainbat material lortzen da produktu berriak egiteko. Hala, lehengaiak eta energia aurrezteaz batera, aire, ur



eta lurraren kutsadura murrizten da. Mankomunitatea osatzen duten udal guztietan abiatuko da kanpaina; daborduko, Lemoizeko Udalak horren berri eman die auzokide guztiei. ◀

Garraio-txartel multimodal berria martxan dago, Bizkaia osoan

Metroz, trenez eta Bilboko tranbiaz bidaiatzeko erabilera askotako txartela jardunean dago daborduko. Gainera, Bizkaian errolatutako 26 urtetik beherako neska-mutilek Bizkaibusez bidaiatzeko ere erabili ahal izango dute txartel. Aldi baterako tituluak Barik pertsonalizatueta erabil daitezke, eta gaur egun indarrean dauden tituluak (Gazte Bizkaibus edo Gazte Metro Bilbao) apirilaren 5ean desagertuko dira; ostera, Bilboko Metroaren urteko titulua ez da desagertuko.

LAB sindikatuak salatu duenez, Metro Bilbaoren 3. linea martxan ipin-

tzeak metroko eta Euskotreneko hileko abonuen %30 eta %40 garestitzea ekarriko du, hurrenez hurren. Hirugarren linea horrek Bilboko Matiko auzoa eta Etxebarri lotuko ditu, apiriletik aurrera. Vicente Reyes Garraioa, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuak jakinarazi duenez, aldaketek garraio-mota horien erabiltzaileen %10ari «bakarrik» eragingo die; «titulu pertsonalak erabiltzen dituztenei, alegia». Era berean, adierazi du txartel multimodal horiekaz bezero onuradunak «51.000 izate-tik 64.500 izatera» igaroko direla. ◀

Martxoaren 8ko aldarriak ozen entzungo dira egunotan ere

Emakumeen ahotsak eta egitekoak herririk herri zabaldu dira egunotan, baita datozenetan ere. Joan den eguaztenean, martxoaren 8aren harira, hainbat ekitaldi egin baziren ere, oraindino hamaika ekimen daude iragarrita eskualde osoan. Berbarako, eguenean, hilaren 9an, emakume kirolarien inguruko mahai-ingurua egingo dute Plentziako Danontzat gaztetxean, 20:00etan. Hurrengo egunean, emaku-

meen bazkaria egingo dute Urdulizko Inola elkartearen egoitzan, 14:30ean, eta, arrastiko 07:00etan, *Las sufragistas* filma proiektatuko dute kultur etxean. Azkenik, domekan, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak antolatutako ekitaldi nagusia egingo dute Barrikan: adierazpen instituzionala irakurri eta hainbat kirol proba egingo dituzte, besteak beste. ◀

info+: hiruka.eus/uribe-kosta



Sakonak Kintuz

EKAITZ HERRERO SAN MARTIN
Kitzikan Uribe Kostako kidea

Erlojuaren orratzak ahaztu dituzte

Nire buruan den mundu paraleloan elkartu dira Carl eta Lev, beste latitude bateko liburutegi zaharkitu batean; ahaztutako mende hura eskaintako ikasbideen harrobian harriak pilatzen. Carlek galdetu dio iraultzaile gazteari ea zein den gizakiok duten altxorrik preziatuena. Lev gazteak «denbora» dela erantzun dio. Eta altxor horrekin zer egin behar duen galdetuta, konpartituko duela erantzun du uste osoz.

Mundu paralelo bera bizi dudanez, askoren latitudetik erantzita, gogaitu naiz progresioaren huskeriaz. Meridianoaren ezker eta eskumara daudenek erlojuaren orratzekin atsegindu diren bitartean, beste bat bortxatu dute. ◀



Eskualdeko aurkezpena barikuan egingo dute, Itzubaltzeta/Romoko parroikia-etxeko ekitaldi-aretoan, arrastiko 07:00etan.

Ekitaldi batzuk

Itzubaltzeta/Romo

Martxoak 10, barikua

19:00 Uribe Kostako Korrika aurkezpena, parroikia-etxeko ekitaldi-aretoan.

20:30 Bertso-Korrika, Jone eta Imanol Uriagaz, Gure Etxea tabernatik.

Leioa

Martxoak 17, barikua

19:00 Leioako aurkezpena, Txomin Aresti ikastetxeko sarreran.

Martxoak 22, eguaztena

14:30 Aurkezpena DBHko ikasleentzat, *Gu ta gutarrak* saioko kideakaz, Kultur Leioan.

Plentzia

Martxoak 24, barikua

19:00 Gorlizko eta Plentziako aurkezpena, Danontzat gaztetxean.

Erandio

Martxoak 24, barikua

19:00 Herri-aurkezpena, Azoka Zaharrean.

Korrikaren aurkezpena

Euskararen aldeko lasterketak apirilaren 6an zeharkatuko du Uribe Kosta, Lemoiz izan ezik. Daborduko, herrietako Korrika-batzordeek egitarau zabala prest daukate.

Korrika aurkezteko, iragartze-ko, harrera egiteko eta baita ere joandakoan agur esateko ia 40 ekitaldi prestatu dituzte auzoetako eta herrietako Korrika-batzordeek daborduko. Korrika Kulturala, Korrika Txikia, Korrika-jaiak... euskararen aldeko nazio-ekimenik handienak txokorik txikienean ere antolatutako ekitaldi denak batzea ez da erraza, egunero zer edo zer berria sortzen baita.

Horrela aitortu du Lohitzune Rodríguez Uribe Kostako Korrika arduradunak, orain arteko ekimenen berri ematean: «egitarauak eguneratzen jarraitzen du egunotan». Horrenbestez, ekitaldiak sortu ahala eguneratuko ditu HIRUKAK agerkari digitalean.

Eskualdeko aurkezpena

Ekimen denak bariku honetan abiatuko dira, martxoaren 10ean, eskualde-

mailako aurkezpenagaz. Itzubaltzeta/Romoko parroikia-etxeko ekitaldien aretoan, arrastiko 07:00etan ipini dute hitzordua Korrikaren eta AEKren lagunek. 20. Korrikaren gaineko nondik norakoak lagunartean azaldu ostean, Jone eta Imanol Uria bertsolariak bertso-kalejira egingo dute herri bereko Gure Etxea tabernatik. Hurrengo egunean, zapatuan, Korrikako materiala erosi ahal izango da goizeko 12:00etatik aurrera Erromotruk azokan, Itzubaltzetako Santa Eugenia plazan. Ordu berean, diru-batzea egingo dute Erandioko Altzaga auzoko kaleetan, musikaren doinupean. Egitarau luzea-

ren hurrengo etapak datorren astean izango dira: barikuan, hilaren 17an, Korrika-festa eta afaria izango dituzte Erandiogoikoko Euskadi plazan eta Dandaka jatetxean, 18:00etatik aurrera; osteran, 19:00etan, Leioako Korrika-aurkezpena egingo dute Txomin Aresti ikastetxeko sarreran. Ordu berean, Getxon, musikaz lagundutako diru-batzea hasiko dute, 23:00ak arte. Hurrengo egunetan, zapatuan eta domekan, diru-batzeak izango dira Plentzian eta Gorlizan. Hala, euskararen aldeko lasterketaren inguruko ekitaldiak hasi besterik ez dira egingo. ◀

info+: Hiruka.eus/bereziak/korrika-20

Mafaldaren kontzertua, herri-harresikoen alde

Barikuan, martxoaren 10ean, ekimen berezi bat egingo dute Erandioko Kalezulo gaztetxean. 21:30etik aurrera, bertan izango dira Mafalda Valentziako ska, reggae, funk eta hardcore musika-taldea eta Huntza erromeria-taldea, *Aldapan gora!* kanta ezagunaren egilea; ondoren, Kurloi Ezkertiarren Esnea disko-jarzaileak goizeko 06:00ak arte girotuko du festa. Afaltzeko aukera ere egongo da. Ekimenaren helburua da Itzubaltzeta/Romoko gazte biren eta beste sei euskal herritarren isunak eta defentsa-gastuak kitatzea. Gazteak 2015eko maiatzaren 18an atxilotu zituzten,



Epaitutako gazteetako batzuk. HALA BEDI

Gasteizko herri-harresian parte hartzen zebiltzala. Pasa den abenduan epaitu zituzten, eta 1.080 euroko isun bana ezarri zieten desobedientziagatik, epaiketara joateari uko eginda. ◀

Errigoraren produktuak eskatzeko aukera, Betiko ikastolan eta Lauaxeta AEK euskaltegian

Martxoaren 14ra arte aukera egongo da eskatzeko Nafarroa Garaia- ren hegoaldeko oliba-olio birjina estra eta kontserba-loteak, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan. Eskaintza Errigora ekimenak egin du, Erriberan euskara eta bertako nekazaritza sustatzeko egitasmoak. Banaketa eta ordainketa bi alditan egingo da: oliba-olioa, apirilaren 1ean; eta kontserba-loteak, ekainaren 1ean; kasu bietan, Algortako Lauaxeta AEK euskaltegian edo Leioako Betiko ikastolan. Aurten, produktu ekologikoak eskatzeko aukera ere egongo da. ◀

eskaerak: Errigora.eus

Martxoaren 15ean, Leioako Irakurle Kluba batuko da, Jane Austen-en liburuagaz

Ana Isabel Morales itzultzaile Leioaztarrak parte hartuko du datorren eguaztenean Leioako Irakurle Klubean. Saioa 19:30ean izango da, Kultur Leioako liburutegiko hemerrotekan. *Harrotasuna eta aurrejuzguak* liburuaren gainean berba egingo dute egun horretan. Obra hori orain dela 200 bat urte sortu zuen Jane Austen idazle ingeles entzutetsuak. Literatura unibertsaleko liburu esanguratsuenetako bat da, eta Ana Isabel Moralesek 1996an euskaratu zuen, Ibaizabal argitaletxearentzat. Bigarren edizioa inprimatu zuen Elkarrek 2013an; hainbat hizkuntza moldaketa eginda. ◀


hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2017ko martxoaren 9tik martxoaren 15era arte



hiruka.eus



Azken diskoa Kalifornian grabatu zuen Mikel Markezek, Noka talde estatubatuarraz; *Bi ahizpak* (2015) izenburua dauka. © MIKEL MARKEZ

GORLIZ

Mikel Markezek kontzertua eskainiko du, udaletxean

Gorlizko udaltxeko bilkura-aretoan kontzertu akustikoa eskainiko du Mikel Markez abeslariak, martxoaren 17an, barikuan. Emanaldia arrastiko 07:00etan izango da; sarrera, doan. Hain zuzen ere, Plentziako eta Gorlizko euskara-agenda bateratuaren barruan antolatu dute musika-saioa. Mikel Markez 1971n jaio zen, Errenterian; hamabost urtegaz gitarra jo-

tzen eta lehen abestiak egiten hasi zen; jendearen aurrean lehen kantu-saioak eskaini zituen garaia hartan.

Abeslari errenteriarrek hamar disko dituzte bakarlarit moduan, eta hainbat bildumatan agertzen dira bere kantuak. Ekoizle legez, hogeitik gora disko dauzka: Patxi Saiz kantariaren lanak edo Trikitixa Elkarteko *Faborez* izenburuko serie osoa dira lanik

aipagarrienak. Irratian ere ibilitakoa da; 1994tik 2010era artean, *Orotimoneko portua* eta *Ahobete hots* saioak zuzendu zituen, Herri Irratian. Horrez gainera, *Kaja beltza* saioaren ardurat hartu zuen, Euskadi Irratian.

Bestalde, *Plazer bat dut, Benito!* (Elkar, 2012) liburu argitaratu zuen, Pako Aristi idazleagaz eta Benito Lertxundi kantariagaz batera. ◀



Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

Getxo

2017/03/09

19:30 *Mujeres vascas en la historia* berbaldia, Algortako kultur etxean, Olga Macià abokatuagaz. Mugabarik elkarrekin antolatu du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2017/03/10

11:00 Kafe-tertulia, San Nikolas plazan. Antolatzaileak dira Algortako Bilgune Feminista, Itzubaltzetako Emakumeen Asanblada eta Bizarra Lepoan euskara elkarrekin.

2017/03/12

19:00 *¡Badabam, badabum!* antzezlan, Areetako Andrés Ibañi musika-eskolan, Hamalika taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2017/03/16

18:30 *La chica danesa* pelikularen proiektzioa eta berbaldia, Algortako kultur etxean. Enclave Getxoko emakumeen elkarrekin antolatu du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2017/03/23

18:15 *Mujeres víctimas de trata, mujeres refugiadas. Desafíos en materia de protección internacional* berbaldia, Itzubaltzeta/Romoko San José elizan, CEAR Euskadiko Verónica Álvarez Garciagaz. Gizatiar elkarrekin antolatu du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Leioa

2017/03/09

19:00 *La residencia* antzezlan, Kafe Huts taldeagaz, Kultur Leioan. Gaztelaniaz. Doan.

Erandio

2017/03/10

18:00 Emakumeen jaia: luntxa eta oparrien zozketa, Altzagako azoka zaharrean.

Sopela

2017/03/09

18:00 Pintura-lehiaketaren sari-banaketa eta *Soy una puta* bakarrizketa, Kurtzio kultur etxean. Itzatu emakumeen elkarrekin antolatu du. Sarrera, doan.

2017/03/12

19:00 *Hilos* antzezlan, Kurtzion, La Rous Teatro taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 6 euro.

dantzaldia, Trio Maran taldeagaz; hamburgesa eta karolina solidarioak; ume-jolasak.

19:00 *Las mujeres sabias* antzezlan, Berango Antzokian, Txirlora-ACADAE taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2017/03/18

19:00 *Confesiones de siete mujeres pecando* solas antzezlan, Berango Antzokian, Luna Lena taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Gorliz

2017/03/14-2017/04/11

18:30-20:30 Martitzenero, irria lantzeko tailerra, Serutuxenan. Izen-ematea, martxoaren 10era arte: berdintasuna@uribekosta.org

Plentzia

2017/03/09

18:00 *Sufragistas* pelikularen proiektzioa eta berbaldia, Gofi Portal kultur etxean. Araidí emakumeen elkarrekin antolatu du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

20:00 Mahai-ingurua emakume kirolariakaz, Danontzat gazteetxean. Soinginen Alabak taldeak antolatu du. Sarrera, doan.

2017/03/10

18:30 *Emakumeen begiradak* erakusketaren inaugurazioa, Gofi Portal kultur etxean. Horrez gainera, *Más allá de una sola voz* liburua aurkeztuko dute. Plentziako Udaleko Berdintasun eta Kultura Sailak antolatu du. Sarrera, doan.

21:00 Olatz Salvadorren kontzertua, Danontzat gazteetxean. Soinginen Alabak taldeak antolatu du. Sarrera, doan.

2017/03/16

18:00 *Nuestra historia de mujeres construida a través de los feminismos* berbaldia, Gofi Portal kultur etxean. Araidí emakumeen elkarrekin antolatu du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Urduliz

2017/03/10

19:00 *Las sufragistas* filma, kultur etxean. Sarrera, doan.

Barrika

Izakinak aukeran egongo dira BECen

Martxoaren 10etik 12ra arte, Stock Euskadi azokaren hamabigarren edizioa egongo dute Barakaldoko BEC aretoan, 11:00etatik 21:00etara. Sarrerak 2 euroan egongo dira salgai; 14 urtetik behera-koak doan sartu ahal izango dira. ◀

Antzerki familiarra, Kultur Leioan

Ganso & Cia konpainiak *Kaput* antzez-lana taularatuko du, Kultur Leioako entzungelan, domekan, martxoak 12an. Hitzordua arrastiko 06:00etan ipini dute, eta sarrerak 2,50 eta 5 euro artean egongo dira salgai. Obrak ez dauka testurik. ◀

Dantza familiar saioa, Sendi elkarteagaz

Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman afektiboa jagoteko saioa antolatuko du Sendik. Martxoaren 17an izango da, barrikuan, Algortako San Nikolas ikastolan; 2 eta 5 urte arteko umeentzat. ◀

info+: sendi@egizu.eus / 644 277 155 (whatsapp)



XVII. Donostia Antzerki Sarria irabazi du antzezlanak. GOIENA

Francoren bilobari gutuna, Erandion

Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain euskal konpainiek *Francoren bilobari gutuna* antzezlan eskainiko dute, Antzerki EguEnak ekimenaren barruan. Erandioko Udalak hilerok euskarazko antzezlan bat programatuko du lehenengo azokan, hilaren hirugarren egunean. ◀

Noiz: Martxoak 16, eguena.

Ordua: 20:00

Non: Azoka Zaharra (Altzaga).

Sarrera: Doan.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

Berango

2017/03/11

19:00 Berangoko emakumeen emanaldia, Berango Antzokian. Hainbat taldek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

2017/03/12

Berdintasunaren aldeko jai, nagusien etxearen aurreko plazan. Euria egitekotan, frontoian.

10:30 Martxa, emakumeen elkarteak ekoiztatik abiatuta, frontoira.

13:00 Adierazpen instituzionala irakurtzea;

2017/03/12

Uribe Kostako Mankomunitatearen ekitaldi nagusia egingo dute.

10:30 Hainbat kirol-proba, emakumeakaz: piragua eta paddle-surfa ibaian.

11:00 Futbol-partidak eta paddle-txapelketa.

12:30 Ekitaldia, udaltxeko plazan.

Agur-dantza, ondoetorria, herriko abesbatzaren emanaldia, Barrikako emakumeen ibilbide eta bizitzaren gaineko azterketaren liburuaren aurkezpena, tai ji erakusketa, adierazpena irakurtzea, euskal dantzak, trikiti-doinuak eta lurcha egongo dira.

ANTZERKIA

MARTXOAK 15, EGUAZTENA

Laburtu marra hau ipuina

18:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Amaia Arriaran ipuina kontalariaz. 5 eta 10 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Doan.

BERBALDIAK

MARTXOAK 15, EGUAZTENA

Leioako Irakurle Kluba

19:30 | Kultur Leioako hemeroteka | Leioa
Jane Austen idazlearen *Harrotasuna* eta *aurreizuzquak* liburua berabide izango dute; Ana Isabel Moralesek itzuli zuen. Euskaraz. Sarrera, doan.

BERTSOLARITZA

MARTXOAK 10, BARIKUA

Bertso Korrika

20:30 | Gure Etxea taberna (Romo) | Getxo
Korrika Kulturala. Jone eta Imanol Urria bertsolariakaz. Bertso-poteoa egingo dute.

DEIALDIAK

MARTXOAK 10, BARIKUA

Korrikaren eskualde-mailako aurkezpena

19:00 | Romoko parroikia-etxea | Getxo
Euskararen aldeko lasterketaren 20. edizioaren xehetasunak emango dituzte. Sarrera, doan.

ERAKUSKETAK

MARTXOAREN 13TIK 17RA

Iazko San Lorentzo jaietako argazkien erakusketa

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Herriarrek argazkiak bozka ditzakete. Doan.

JAIAK

MARTXOAK 11, ZAPATUA

Aratusteak

12:00 | Herritik | Plentzia
Hurrenez hurren, puzgarriak eta tailerrak (12:00), tostada-lehiaketa (13:00), triki-poteoa (13:30), gazte-bazkaria (15:00), desfilea eta disko-festa (18:00), elektro-txaranga (19:00), txokolatada (20:30) eta zezensuzkoa (21:30) egongo dira. Jaiak Danontzat Gaztetxean segituko du.

KIROLAK

MARTXOAK 12, DOMEKA

Gaztetxoan mendi-irteera

10:00 | Armitzako bus-geralekua | Lemoiz
Etrandarri Euskal Mendi Taldeagaz. Andutzeira (616 metro) eta Saltsamendira (590 metro) igoko dira. Izen-ematea: 688 602 121 (Marian).

MUSIKA

MARTXOAK 10, BARIKUA

Gasteizko herri-harresiagatik zigortutako lagunen alde

21:30 | Kalezulo gaztetxea | Erandio
Gasteizko herri-harresian parte hartzeagatik epaitutako gazte bakoitzak 1.080 euroko isuna ordaindu behariko du; itzubaltzetar bi daude zigortuen artean. Kalezulo Gaztetxeko jaialdian batutako dirua hori ordaintzeko erabiliko dute. Huintza eta Mafalda taldeek joko dute.

ZINEMA

MARTXOAK 12, DOMEKA

Zinegoak

18:00 | Algortako Gaztelekua | Getxo
Bilboko gay/lesbotrans-zinema jaialdira aurkeztutako hainbat film labur ikusgai egongo dira. Jatorrizko hizkuntzan, azpituiluakaz. Sarrera, doan.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Kapulana bat zintzilik emanaldian, Mozambiken bizi izandakoa erakutsiko du Miren Amurizak; Eider Eibarren ilustrazioak erabiltzen ditu. ANBOTO

Ekitaldiak

Martxoak 17, barikua

19:00 Mikel Markez musikagilearen kontzertu akustikoa, Gorlizko udaletxe bilkura-aretoan.

Martxoak 24, barikua

19:00 Korrikaren aurkezpena, Plentziako Danontzat gaztetxean.

Apirilak 5, eguaztena

22:00-00:30 Korrika Plentziatik eta Gorliztik igaroko da, Elektro Rock eta Aldats txarangek girotuta.

Apirilak 7, barikua

18:00 Kapulana bat zintzilik ikuskizuna, Plentziako Goñi Portal kultur etxean, Miren Amuriza bertsolariagaz.

Martxoaren 30etik apirilaren 12ra arte, erakusketa egongo da Goñi Portalen.

Apirilak 29, zapatua

18:00 Katillukadak txotxongilo-ikuskizuna, Gorlizko udaletxe bilkura-aretoan.

Euskaldunen sarea zabaldu guran

Plentziako eta Gorlizko euskara-agenda bateratuak abian ditu daborduko martxoko eta apirileko ekitaldiak.

Hurrengo bi hilabeteetako egitaraua martxan dauka Gorlizko eta Plentziako euskara-agenda bateratuak; euskararen eta sexismoaren inguruko kafe-tertulia egin zuten joan den

astelenean, martxoaren 6an. Hala, egitarauari jarraituz, Mikel Markez musikagile errenteriarrak kontzertu akustikoa emango du, Gorlizko udaletxe bilkura-aretoan, martxoaren 17an, barikuan. Horrez gainera, Korri-

karen gaineko ekitaldiak alde batera utzita, *Kapulana bat zintzilik* bertso-ikuskizuna eskainiko du Miren Amurizak, Plentziako Goñi Portal kultur etxean, apirilaren 7an, barikuan. Kapulana Mozambiqueko emakumeen oihal koloretsuak dira: soineko moduan, umeei lepoan ipintzeko, jana batzeko edo etxeak apaintzeko erabiltzen dituzte. Emanaldian, zapi ho-

rietako bat zabaldu eta bertan «gor-detako» kantuak, kontuak eta irudiak «aterako» ditu Amurizak; bertsoak eta ipuinak erabiliko ditu; Eider Eibarren ilustrazioak ere baliatuko ditu bertsolari berriztarrak.

Plentziako eta Gorlizko euskara-agenda bateratuaren ekitaldi denak doakoak dira; horien bitartez, euskararen erabilera bultzatu gura dute. ◀

Hitza emanda



Lore-hautsa

Udaberri sasoia
alergiaren kabi;
polena erabiliz
emaitza ugari...
Mimosa-hautsak jartzen dit
kotxea hori-hori,
kalamuanak aldiz
burua ameslari!



JAGOBA PEREDA TXOPITEA
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Udako liburuxkaren azala aukeratzeko kartel-lehiaketa egingo du Gorlizko Udalak

Udan plazaratzen duten liburuxkarako azala aukeratzeko kartel-lehiaketa antolatu du Gorlizko Udalak; garai horretako aisialdi-programa eta udalerriko jaiak iragarriko dituzte *Gorliz 2017 Uda* gidaliburuan. Hala, adinez nagusiak diren pertsonak eta elkarteek parte har dezakete; horietako bakoitzak lan bakarra baino ezin izango du aurkeztu. Saria 300 euro izango dira. Gaia librea izan arren, udako astialdiagaz lotura izan beharko du kartelak; horregaz batera, Gorlizegaz lotutako gaiak erabiltzea gomendatu dute antolatzaileek. Bestalde, sexualitate, arrazagatik edo bestelakoengatik iraingarriak izan daitezkeen kartelak lehiaketatik kanpo utziko dituztela iragarri dute antolatzaileek. Egindako lanak posta arruntez (Gorlizko kultur etxea, Krutzeta kalea, 5. 48630 Gorliz), lekuan bertan edo helbide elektroniko bidez (gorliz@gorliz.net) aurkez daitezke, martxoaren 31ra arte. ◀

Surfaren gaineko filmen egileakaz, topaketak

Martxoaren 16an eta 17an, Sopolako Kurtzio kultur etxean egingo dituzten topaketetan parte hartuko dute surfaren inguruko film laburren zuzendariak eta surfariak. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute; sarrera, doan. TAU media ekoiztetxeagaz batera antolatu du jardunaldia Sopolako Udalak. Hainbat film labur proiektatzeaz gainera, lehengo egunean, aipamen berezia egin gura diote surfean aritzen diren emakumezkoek; bertan izango dira Leticia Canales surfari sopoloztarra eta Ana Urrutia telebista-aurkezle bilbotarra egongo dira bertan, besteak beste.

Barikuko jardunaldiari dagokionez, olatu handietan egiten den surfaz berba egingo dute; kontuak horrela, ohol gainean bizi izandako esperientziak kontatuko dituzte Natxo González plentziarrak, Axi Muniain zarauztarrak eta Adrián Fernández de Valderrama bakiotarrak; orain dela gutxi, Mave-



© LETICIA CANALES

ricks (Kalifornia, AEB) edo Nazarén (Portugal) egon dira, olatu handiak hartzen. Topaketei akabua emateko, Sopolako kanpineko garagardotegira hurreratuko dira gonbidatuak eta ikusleak, surfaren gaineko film laburrez gozatzen jarraitzeko. Horregaz batera, La Salveren garagardo mota ezberdinak dastatu ahal izango dira. Zinegileen artean, besteak beste, Jon Aspuru bakiotarrak eta Goya anaiek parte hartuko dute, 2016an hainbat sari jaso dituzte, beste egile batzuek batera. ◀

«Izendegiek emakumeak eta gizonak sortzen dituzte»



Emaginek eta Bilgune Feministak Gida lantzeko eratu zuten lantaldearen partaide da Saioa Iraola leitzarra.

Izena eta izana ezbaian

gida praktikoa aurkeztu zuten, Romoko kultur etxean, joan den astelehenean, martxoaren 6an.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA
ARGAZKIA: SAIOA IRAOLA URKIOLA

Izenek egungo biko genero-sistema zelan erreproduzitzen duten azaltzeko, Saioa Iraola Urkiola Bilgune Feministako kideak akordura ekarri ditu Idurre Eskisabel Larrañaga kazetari eta antropologo beasaindarraren berbak. Eskisabelek esaten duenez, «egunerokotasunean, emakumeak eta gizonak sortzen dituzte izendegiek». Iraolaren arabera, mugapen bat dago batzuk zein besteak izendatzeko. *Izena eta izana* gida praktikoa lantzeko eratutako lantaldeko kidea da leitzarra.

Nondik dator horrelako gida praktikoa egiteko beharra?

Orain dela 4 bat urte, gure militanteen artean kezka bat sortu zen: ama izatean, trabak ipintzen ari zitzaizkien hainbat kideri, ordura arte arazorik suposatu ez zuten izenak erregistratzeko garaian. Batetik, gida praktikoa hau egitea erabaki genuen izenen inguruan gogoeta bat egiteko. Bestetik, pertsona-izenen araudia zein den

ezagutu nahi genuen, horren aurrean zein estrategia elkarbana genezakeen jakiteko, legeari ziria sartzeko.

Zenbait izenek sexuaren arabera bereizkeria bultzatzen dutela diozue.

Hizkuntzak errealitate bat interpretatzeko balio digu; nortasun edo identitateen garapenean ezinbesteko tresna bat da, izena den bezala. Aldi berean, garaira moldatzen doa. Hori horrela, pertsona-izenek funtzio bikoitza daukate: norbanakoa izendatzeko balio

“Ondoko herrira joaten dira guraso asko, bertoko erregistroko langilea irekiagoa delako”

dute; baina, aldi berean, norbanako hori jendartean edo sare sozial konkretu batzuetan kokatzeko balio dute.

Zeintzuk dira lehenago aipatu dituzun strategi horiek?

Sexu-genero informazioa ematen digute izenek. Ni Saioa deitzen naiz; horrek emakumea edo gizonetza naizen argi uzten du. Ildo horretan, emakume-gizon binomia indartu egiten dute izenek. Gauzak horrela, sexuaren arabera izendegia gainditu eta jaioberriari gustuko izena ja-

ri ahal izateko aukera edo estrategia ezberdinak jaso ditugu *Izena eta izana ezbaian* gida praktikoa. Euskaltzaindiak gomendio bat egiten du: i, o, u bokalez eta kontsonantez amaitzen diren izenak, hasiera batean, gizonetza koentzat izango lirake, salbuespenak salbuespen; eta a eta e amaiera dutenak emakumeetza koentzat izango lirake. Egoera horren aurrean, aukera bat da justifikatzea guk jarri nahi duguna fikziozkoa edo pertsonaia baten izena dela. Adibidez, ‘Maren’ hitzak itsaso esan nahi du norvegieraz; bertoko ipuinetako pertsonaia dela argudiatu zuten guraso batzuek, bere umeari ipintzeko. Horrekin lotuta, ‘Itsaso’ emakumeak izendatzeko erabili izan da beti, o bokalez amaitzen den arren. Bada, mutil bati jartzeko, aita-amek frogatu zuten Nafarroako herri baten izena dela: Itxaso. Toponimia erabiltzea ere aukeretako bat da.

Zein da beste aukeretako bat?

Hirugarren aukera da Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren bitartez frogatzea ‘Elur’, ‘Aratz’, ‘Joar’ edo ‘Amaiur’ bezalako izenak nesketza koentzat erabili direla. Bestalde, erregistroaren funtzionarioaren esku gelditzen da askotan izenena; asko ondoko herrira joaten dira, bertoko langilea irekiagoa delako. Bitartean, askok genero-markarik gabeko izenen aldeko apustua egiten dute. ◀



Munduaren aurrean gizenki azaldu...

A rrazoi daukan! Neu ere gure abesti zaharrak kantatzen hasten garenean, lotsatu egiten naun. Batzuk hain ditun matxistak... *Sartzen badonat ilentia, erreko donat ipurdia... Aitorren hizkuntz zaharra nahi degu zabaldu / munduaren aurrean gizenki azaldu... Oi, Pello, Pello, logale nauk eta, jinen niza oherat; irun ezan eta, gero, gero, gero, irun ezan eta, gero, gero, bai!...*

–Bai, ba! Eta ez bakarrik antzinako herri-kantak. Autoredu bertso ez hain zaharretan ere topa daitezken halako perlak. Esaterako, nik batere matxistatzat ez daukadan Xabier Amurizaren bertso batzuk zauzkanat gogoan: *Euskaldunak hiru gauza maite zitun antzina / osasuna, ardo zaharra, etxean andre fina / ez zekien zer den gaurko libre bizi ezina / hobe denok orain bostehun urte jaio bagina.*

–Saia gaitezen, bada, abestio hitzak zaharbertzen, ironiaz eta umorez. Izan ere, umore bako iraultza, gorringo bako arrautza dun! Horra nire ahalegina: *Sartzen badostak ilentia, laster dok hire iletia... Aitorren hizkuntz zaharra nahi dugu zabaldu / munduaren aurrean gizenki azaldu... Oi, Pello, Pello, logale nauk eta, ni bania oherat; neuk irunen dinat, bero, bero, bero, ta hik bitartean egin lo lasai!*

–Kar, kar, kar!!! Bertso xelebreak, baina egungo lagunartearako zaharrak baino egokiagoak nik uste. Ezetz ausartu orain Xabierren bertsoarekin...

–Horretzek emango zidan lanik txikiena: *Euskaldunak hiru gauza maite zitun antzina / osasuna, ardo zaharra, etxean lagun mina / ez zekien zer den gaurko libre bizi ezina / hobe denok orain bostehun urte jaio bagina.*

–Ez zagon gaizki! Xabier ikusten dugunean, berarekin batera abestuko dinagu bertso berria, bera ere lagun mina dinagu eta! ◀

Albuma





Aratusteak 2017; izan zinen?

Aratusteen sasoia *Gura duguna izateko* goiburuagaz aurkeztu genizun orain dela aste batzuk... Erandioko, Leioako eta Getxoko ekitaldi batzuetan egon da HIRUKA, horien lekukotasuna dira irudiok. Eta zu, irakurle, izan zinen gura izan zenuena? Jantzi zenuen mozorroa? Txonbo egin zenuen inauterietan? Azken aukera balia dezakezu aste-akabu honetan, Plentzian...





Uribe Kostara, surfgunea

Iaz Juliette Brice nagusitu zen Sopela Pro Junior txapelketan. © LAURENT MASUREL - WSL

Uribe Kostako hondartzetan egingo dira Euskal Herriko Surf Federazioaren zenbait txapelketa; bodyboard, surf, eta SUP arlokoak. Gehienak Sopelan egingo dira, irailean.

Euskal Herriko Surf Federazioak 2017an antolatuko dituen proben egitaraua argitaratu du. Ohi legez, txapelketak hiru modalitateetan egingo dira: bodyboardean, Stand Up Paddle-an (SUP) eta surfean.

Iaz bezala, apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran abiatuko da Euskal Surf Zirkuitua, Donostian edo

Deban. Irailaren 23ra eta 24ra itxaron behar izango da Sopelako Arriatera hondartzan ikusi ahal izateko zirkuituko bigarren proba eta Euskal Herriko Txapelketa. Zirkuituak beste proba bi izango ditu: bata, Getarian; bestea, Mundakan edo Bakion, itsasoaren arabera. Euskal Bodyboard Zirkuituak ere Arriatera hondartzan izango du bere

etapetako bat, beren-beregi lehenengo, Euskal Surf Zirkuituaren data berberetan, irailaren 23an eta 24an. Zumaia eta Mundaka edo Bakio izango dira gainontzekoak. Euskal SUP Race Zirkuituari dagokionez, bost proba izango ditu; eurretako bi Uribe Kostan jokatuko dituzte: maiatzaren 28an, Getxon; eta irailaren 30ean, Plentzian.

Egitarauaren azken zirkuitua, Euskal Herriko Gazte Surf Zirkuitua, lau etapaz osatuta egongo da. Lehenengo Sopelako Barinatxe hondartzan jokatu da, maiatzaren 13an eta 14an.

Azkena Plentzian izango da, abenduaren 8tik 10era. Aipatutakoak ez dira izango Euskal Herriko Surf Federazioak Uribe Kostara egingo dituen bisita bakarrak. Izan ere, eskualdean egun bakarreko zenbait txapelketa egingo dira: Sopela Pro Junior, Munduko Surf Ligaren sailkatze-seriea, uztailaren 20tik 23ra izango da; Euskal Herriko Beteranoen Txapelketak eta taldeen artekoak Atxabiribilen izango dira irailaren 23an eta 24an. Azkenik, bodyboard-ekitaldi berezia egingo dute Lemoizko Atxurren, neguan. ◀

Didac Costari harrera egin diote Abra klubean

Didac Costa nabigatzaile katalana pasa den zapatuan hurreratu zen Areetaraino, Abrako Itsas Errege Kluba ezagutzera. Bertako bazkideek eta zuzendaritzak Costa zoriondu zuten, Vendèe Globe banakako munduko bira arrakastaz amaitu zuen eta. Klubak azaldu duenez, «Costak erakarri egin gintuen itsas lasterketa amaitzeko erakutsi zuen umiltasunagatik, auzardiagatik eta determinazioagatik». Aurretik, Costak zenbait traba izan zituen, tartean «bere ametsa egia bihurtzeko beharrezkoak zituen baliabideak lortzeko». Zuzendaritzak klubaren garaiak eman zion, marinela berbal-



Didac Costa, Vendèe Globen. © DC

dia eskaini eta galderak erantzun aurretik. Azkenik, Costa lagundu duen WOP gaixotasun arraroak ikertzeko elkartasun-ekimenak jakinarazi zuen Alberto Iñurrategi 8.000 metroko mendia igotzen ahaleginduko dela. ◀

Lutxana Arraun Elkarteak lehia denetarako prest

Baizabal itsasadarrak aulki mugikorreko arraun-estropaden egitarau zabala izango du datozen asteotan zein hilabeteotan. Daborduko, Lutxana Arraun Elkarteak jakinarazi du negu eta udaberriko egitaraua, Bizkaiko Arraun Federazioagaz batera antolatutakoa. Klubak bost hitzordu ipini ditu ekainaren 4ra bitartean. Domekan, hilaren 12an, lineako estropada izango da Sestaon; maiatzaren 1ean eta 20an, arlo bereko probak egingo dituzte, baina Lutxana eta Alzaga artean. Maiatzaren 28an, Bizkaiko Txapelketa prestatzeko estropada izango da, leku berean. Azkenik, ekai-



©LUTXANA ARRAUN ELKARTEA

naren 4an jokatu da aulki mugikorreko Bizkaiko Txapelketa, Lutxanatik Alzagaraino. Dominak Erandioko udaletxearen aurrean banatu dituzte goiz berean; euria izanez gero, Azoka Zaharrean egingo lukete. ◀

Erandioztarrak, Saharan

Begoña Beristain eta Jon Salvador atleta erandioztarrek podiuma zapaldu zuten pasaden otsailaren 28an, Saharako Maratoian. Biak ala biak hirugarren postuan heldu ziren, Aljeriako basamortutik 42 kilometro luze bete ostean. Seme eta iloba banagaz batera lehiatu arren, Salvador indarrez oso ahul heldu zen helmugara, arkutik pasatu bezain laster zorabiatu egin zen. Erandioztarrari seruma ipini behar izan zioten probako erizainek. Izan ere, lasterketa berez oso gogorra da, baina aurtengo edizioa ohikoa baino askoz muturrekoagoa izan da, elementu biren erruz: 32 graduko temperatura eta kontrako haize-ufada gogorrak. Be-

ristain eta Salvador ez ziren izan probako bizkaitarrik onenak Saharako Maratoiaren 17. edizio horretan. Oherori Elena Frechilla kirolari sondikoztarrak lortu zuen, emakumezko azkarrena izan baitzen proban. Gizonezko dagokienez, irabazlea Giorgio Calcaterra italiarra izan zen. Calcaterra 100 kilometroko munduko txapel-duna izan da hiru biderrez.

Sahara Maratoiaren helburuak dira, kirol-mailakoak alde batera utzita: herri sahararraren egoera nazioartean gogoraztea eta jendarte-laguntza zabaltzea Tindouf-eko errefuxiatu-kampamentuetan. Ohi legez, Euskal Treenebideetako Langileak Mugarik Gabe elkarteak botikak eroan zituen. ◀



Beristain eta Salvador. © SAUCONY



Aldagelatik

ANA
MASA PEREIRO
Kirolzale amorratua

Errugbizaleok txapela buruan eta ibili munduan

Orain dela 12 urte hasi nintzen errugbian, eta harrezkero ez diot inoiz jokatzeari utzi. Europako hainbat hiritan bizi izan naiz, eta beti saiatu naiz errugbi talderen bat bilatzen. Bartzelona, Viena, Madril eta orain Munich; guztietan topatu dut errugbi talde bat eta harremanetan jarri naiz berehala. Eta guztiek erantzun didate esaldi bera; «Noski baietz, noiz zatot?».

Izugarri soziala da errugbia munduan zehar. Berdin du hizkuntza ezagutzen duzun, lehen jokatu duzun ala berria zaren. Adina ez da garrantzitsua, ezta jatorria: denok daukagu lekua errugbi familian. Jokatu nahi baduzu, zu hartzeko prest dagoen talde bat aurkituko duzu zure inguruan. Eta nahiago baduzu Sei Nazioen Torneoa telebistan ikustea, edozein hiriko taberna irlandarrean aurkituko duzu eztabaidatzeko prest dagoen errugbizale amorratuen kuadrilla.

Ez dakit kirol guztietan ote dagoenik errugbian bezalako komunitate sentimendu hau. Agian kirol txikitzen bakarrik gertatzen da, hau da, hedabideetan normalean agertzen ez diren kirolak. Edo errugbizaleok futbolarekiko aldea handitzeko dugun nahia- ren kontua izango da. Litekeena da normalean luzatzen den hirugarren denboraren errua izatea komunitate fenomeno hau: errugbizaleei gustatzen zaigu geure partiduak aurkariarekin komentatzea garagardoa eskuan dugula, gero nazioarteko partidu bat ikustea eta eztabaida etengabe jarraitzea.

Arrazoia zeinahi dela ere, munduko edozein izkinatan aurki dezakezu errugbizalaren bat; zure laguna bihur daiteke partida bakarra ikusi eta gero, edo garagardo bat elkarrekin hartu ostean. Lagun zoragarriak ezagutu ditut nik errugbiari esker, munduan zabaldua dagoen taldea. ◀

Errugbia, partaidetza zabaltzeko tresna gisa

Pasa den azaroaren 26tik gaur artean, liga berezian jokatzeko dihardu Getxo Rugby Taldeak. Aipatutako egun horretan, trebetasun ezberdinak dituzten kirolzaleei errugbian entrenatzeko aukera eman zieten, lehenengo aldiz, Faduran. Ekimenaren arrakastari esker, daborduko hirugarren saio publikoa egin dute; ordu beteko entrenamenduak irekiak dira parte hartu gura duenarentzat, eta jokalariek ohiko hirugarren denboraz gozatze-ko aukera izaten dute. Aitor Arri Getxo Rugby Taldeko jokalaria zuzentzen du taldea. Getxoko talde barneratzailea dibertsitate funtzionala dutenei zein ez



© AITOR URIARTE - GETXO RUBY TALDEA

dutenei zabalik dago. Taldearen helburua da errugbian ikustea, errugbiaz gozatzea, eta kirol horri lotutako baloreak norberak bereganatzea. Ekimena Uribe Kosta eta Haszten elkarteek eta Getxo Rugby Taldeak dinamizatzen dute. ◀

Getxon igeriketa-campusa egingo da Aste Santuan

Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkar- tearen Aste Santuko campusean izena eman daiteke daborduko. El- karteak jakinarazi duenez, apirilaren 10etik 12ra eta 18tik 21era egingo dute campusa, 08:30etik 14:30era. Au- keran daude inskripzioa 7 eguneko-koa egitea, 4 eguneko edo egun solteetako-koa. Klubak ez du epemugarik ipini inskripzioa betetzeko; baina, iragarri du leku-ko- purua mugatua dela. 4 eta 12 urte bi- tarteko neska-mutilentzat prestatu dituzte jarduerak: psikomotritzitatea, jolas-igeriketa, askotariko kirola eta tailerrak izango dira, besteak beste. ◀

info+: 663 871 318 / getxoibke@gmail.com

Castellanos semea omenduko du Euskal Tennis Federazioak

Euskadiko Tennis Txapelketa Absolutua «José María Castellanos aitaren eta semearen oroimenez» jokatu da hemendik aurrera, Euskal Tennis Federazioak iragarri duenez. Izan ere, pasa den otsailaren 23an zendu zen José María Castellanos Dueñas *Chitín* kirolari getxoztarra, 77 urte zituela. Dueñas Bizkaiko eta Hego Euskal

Herriko txapelduna izan zen dozenaka urtetan, hainbat mailatan eta modalitateetan. Gainera, Jolasetako aurpegi publikoetako bat izan zen, bertan 35 urtez beharrean ibilia. José María Castellanos Ledo aita, ostera, Hego Euskal Herriko tenis-federazioaren presidentea izateaz gainera, Athleticeko jokalaria izan zen, 1928tik 1934ra. ◀



Chitín zena, erdian. © JOLASETA

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Cabieces fitxatu du Realak



Cabiecesek denboraldia Gobelan amaituko du. © ACCIÓN SPORT

Edorta Cabieces Sanz aurrelari gorliztarrak denboraldi bira-ko kontratua sinatu du Realagaz. Cabiecesek 17 urte ditu eta Arenas futbol-klubaren gazte-taldean jokatu du aurretik. Horrela segituko du denboraldi honetan, kontratuaren arabera gorliztarrak datorren denboraldian jantziko baitu elastiko zuri-urdina. Zubietako futbol-zelaian hasiko da jokatu, Ohorezko Mailako gazte-taldean. Urribekostarrak hainbat partida jokatu ditu 18 urtez azpiko Euskadiko selekzioagaz. Athleticetik ere ikuskatu egin du gorliztarrak; berbarako, iaz, hainbat entrenamendu egin zituen Cabiecesek Lezamako teknikoakaz. Modu berean, hainbat txapelketa jokatu izan ditu zuri-gorrien taldeagaz. Halere, Athleticetik ez zion eskaintzarik egin.

Realak ez du aukera galdu

Donostiako futbol-taldeak jokalaria-
ren eboluzioari jarraitu dio azken ur-

teotan eta, Ibaiganeren jokabidearen aurrean, aurrelariagaz eta sendiagaz akordio batera heldu zen.

Cabieces golegile fina da beheko mailetatik; berbarako, 2013-14 denboraldian, 25 gol sartu zituen Romorentzat, ume-mailan. Daborduko 1,90 metroko altuera dauka eta futbolari sendoa eta gogorra da. Hanka biakaz ondo moldatzen da eta bizkarrez ere jokatzeko gaitasuna dauka. Trebetasun berezia dauka aurretik heldutako baloiak indarrez mugitzeko. 2005ean estreinatu zen Gorliz Kirol Elkarteko benjaminen taldean. Klubean jarraitu zuen 2011ra arte. Urte hartan, Gobelara jauzia eman zuen, Romoko futbol-klubeko kimuakaz jokatzeko.

Unai Rementeria Castro

Ez da lehenengo aldia Realak Gobelako jokalaria-
ren arreta ipintzen duena; esaterako, orain dela denboraldi bi Arenaseko Unai Rementeria fitxatu zuen gazte-mailako talderako. ◀

Arenas eta Romo taldeek campusa egingo dute

Aste Santuko campuserako inskripzio-epaia zabalduta dute Arenas eta Romo futbol-taldeek. Campusa Gobelako futbol-zelaian egingo dute, kiroldegiko igerilekuetan eta ikus-entzunezko geletan, apirilaren 10etik 12ra eta 18tik 21era. Ekimena prestatu dute «Aste Santuko oporretan euren gogoko kirola praktikatzeko gozatu gura» duten 5 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzat. Aukerak daude lehenengo txandara joatea, bigarren txandara, txanda bietara edo egun batzuetan baino ez. Ordutegia 08:30etik 14:30era izango da. ◀

info+: 657 268 606 /
arenasromocampus@gmail.com

1,1 milioi euro Getxo udalerriko kirol-taldeentzat

Getxo Kirolak udal-erakundearen aurtengo diru-laguntzak eska ditzaten daborduko udalerriko klubek eta kirolariak. Denera, 1.095.000 euro emango dizkiete kirol-elkarteei, euren ohiko jardueretan laguntzeko, eta banakako lehiaketetan diharduten errendimendu handiko kirolariak emateko. Aurreko urteotan legez, deialdi baka-
rean bateratu dituzte kirolari begirako laguntza denak. Kontuan hartuko dituzten balorazio-irizpideak hauek dira: emakumeen kirolaren sustapena, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako jarduerak antolatzea eta klubaren inplikazioa eskola-kiroletan. ◀

Sabin Merino apirilean bueltan egon daiteke

Sabin Merino Zuloaga Athleticetik aurrelari urduliztarrak denboraldi tristea bizitzen dabil aurretik. Jokalariari ebakuntza egin zioten pasa den urtarrilean, denboraldi-hasieratik oztopo izan dituen pubiseko arazoak konpontzeko. Hala, otsailaren amaierara arte osatzen jardun du urduliztarrak. Granadaren aurkako partidaren azken minutuak jokatzeko zelairatu zen, eta lesionatuta irten zen. Klubeko medikuek esan zutenenez, «jokalaria eskua belauneko hiper-he-
dapena egin zuen. Horren eraginez kolpe handia sufritu zuen tibia-mesetan balizko haustura lerroagaz, hu-



Valverdeketan beteta dauka erizaindegia.

rrengo egunetan egingo zaizkion proba osagarrien bitartez baieztatu behar dena». Proba horien emaitzen arabera, Merinok denboraldi osoa gal lezake, haustura baieztatzen; edo lau aste barru egon liteke bueltan. ◀

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

**Ñaki
Bitxitegia**



Montblanc, Longines eta
TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

GAVRKO
1967



50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila ugariz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzaile eta partaide izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

LORALDIA festibalari esker, sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu hurrengo aste-akabuko ekitaldietarako: Xabi Aburruzaga (hilak 17), Kukai & Lagunak (hilak 18) eta Drag E (hilak 19)

Sarrerak lortu gura badituzu, martxoaren 14a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337. Erantzun-atlean, adierazi zein ikuskizunetara joan gura duzun.

Martxoko saria

Bingen Ametzagaren «Itsaso aurrean» liburua

Bizarra Lepoan elkartearen ekimenez, hilabete honetako sari hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Parte hartu martxoaren 31 baino lehen.



Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorragaz), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitate helarazteko. Bestelako erabilpenik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

				3				1
				5				7
		8						
9								2
	8		6	1	3			
		7	4					
			1			3		
6	7	4						9
		5			9	6		7

Soluzioa

2	8	9	6	4	2	5	1	3
6	1	2	5	8	3	4	7	9
5	4	3	7	9	1	6	2	8
8	3	5	2	6	4	7	9	1
4	6	7	3	1	9	2	8	5
9	2	1	8	7	5	3	4	6
3	9	4	1	2	6	8	5	7
2	7	6	9	5	8	1	3	4
1	5	8	4	3	7	9	6	2

+ Guardiako farmaziak, hilaren 9tik 15era

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Obieta kalea, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26.

ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan eta domekan 09:00-22:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOIA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

ESQUISABEL. Algortako Etorb., 32. ALGORTA. 944 602 529. Barikuan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andres Larrazabal kalea, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00-13:30.

NÚÑEZ.

Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Astelehenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile kalea, 1. Leioa. 944 800 484. Zapatuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Martitzenean, 09:00-22:00.

RAMOS. Langileria, 92. LAMIAKO. 944 645 185. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Zapatuan, 09:00-13:45.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-13:30; eta zapatuko 22:00etatik asteleheneko 22:00ak arte.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuko 09:00etatik zapatuko 13:30ak arte.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.



Memoria elkarganatzeko

Askotariko indarkeria-motak pairatu dituzten herritarren esperientziak ezagutarazteko Memoriaren Plaza zabalduko du Gogora institutuak Getxon, martxoaren 13tik 19ra. Horren helburua da denon artean memoria osatzea.

IKER RINCON MORENO

Azkeneko hamarkadetan askotariko indarkeria-motak jasan dituztenen lekukotzak jasotzeko, Memoriaren Plaza zabalik egongo Areetako Xake plazan, hilaren 13tik 19ra. Eusko Jaur-laritzaren Gogora institutuak bultzatu du ekimen hori, «guztion memoria» eraikitzeko urratsak emateko helburuagaz. Horretarako, karpa bat ipiniko dute Areetako erdigunean dagoen Xake plazan. Bertan, hainbat berbaldi eta tailer antolatuko dituzte, 1936ko gerra, diktadura frankista, ETaren indarkeria eta poliziaren legez kontrako indarkeria pairatutako gizon-emakumeen testigantzak oinarri hartuta.

Memoriaren Plaza herritarren partaidetzarako programa bat da. Horren bitartez, herritarren memoriaren inguruko lekukotzak jaso gura dituzte, mezu idatzietan jasotakoak zein telefono mugikorrez grabatutakoak. Horiek denak proiektuaren webgunean jasoko dituzte, hurrengo hiru atal hauetan: emozioak, lekukotzak eta proposamenak. «Denok dauka gu memoria eraikitzeko eskubidea, eta denok gaude hori egitera gonbidatuta; izan ere, lan partekatua eta plurala da memoriaren eraikitzea, eta herritar oro da memoriaren parte», azaldu dute antolatzailak.

Proiektuak parte-hartzearen ariketa bat izan gura du, memoria kolektiboa eraikiz egiten dena. Hartara, herritar denak gonbidatuta daude haien testigantzak ematera, «haien ekarpenari esker memoriaren puzzlea osa dadin, demokratikoki eta era parteka-

tuan». Izan ere, horixe izan gura du Memoriaren Plazak, herritar guztion artean memoria osatzea.

Memoria kolektiboa osatzeko guran

Gogora institutukoek nabarmendu dute mundu osoan debate sakona dagoela memoriaren gaineko politika publikoak direla-eta, eta ikuspegi ezberdinak ezbaian daudela. «Poliedrikoa eta gatazkatsua da memoria, ez baitaude bi memoria berdin. Hala ere, errealitate plural hori aitortzeak ez du eragozten gutxieneko adostasun batzuk antzematea, zeinak

«Ez daude bi memoria berdin. Hala ere, errealitate hori aitortzeak ez du eragozten gutxieneko adostasunak ematea»

memoriaren gaineko politika publikoak orientatzeko oinarri kontzeptualak bilakatzen baitira».

Memoriaren Plaza proiektua horren guztiaren esparruan kokatu dute, «bokazio berritzailearekin». Guztiona den memoria eratzeko herritarrek duten eskubideari erantzun gura dio horrek, «betiere, pluralismoa, printzipio demokratikoak eta giza eskubideak errespetatzen dituen esparru batetik eginda». Horretarako bideak eskaintzen ditu ekimenak, zuzeneko partaidetza eta adin ezberdinetako emakume-gizonen parte-hartzea garatzeko.

Plazan sartu, sentitu, aditu eta irakurri

Horri guztiari erantzunez, Euskal Herriko boluntario askok euren testigantzak grabatu dituzte mugikorrez, beraien oroitzapenak edo beste pertsona batzuenak azaltzeko. Horiek denak Memoriaren Plazak duen webgunean partekatu dituzte, gura duen edonork ikusi, aditu eta esaten dutena sentitzeko. Modu berean, proiektuaren lekukotzak grabatzen segitzeko gonbitea egiten dute arduradunek: «zuk ere bidali ahal diguzu zure grabazioa».

Euren testigantzak grabatu dituztenez gainera, badira bere aurpegi isila memoriaren erretratutzat grabatu dituztenak ere. Horretarako aukera ere eskaintzen du Memoriaren Plazak, emozioak sentiarazteko guran. Halaber, memoriaren gaineko idatzizko ekarpenak ere bidali dituzte pertsona askok, besteengan gogoeta eragiteko nahian. «Barkatu behar dugu, baina inoiz ez ahaztu», dio baten batek; «Biktima danek bizi nahi dute, erailketaren momentuan: denok gara berdinak heriotzaren aurrean. Desberdintasuna, biktimen errekonozimenduan dago: batzuen aldeko gogoeta egitea debekatzen dute, beste batzuen aldeko gogoeta egitea debekatzen dute. Gogoeta horiek denak anonimoak dira.

Memoriaren Plaza, Getxon

Iaz ipini zuten martxan ekimena, eta daborduko zortzi udalerrietan egon da: Bilbon, Durangon, Tolosan, Gasteizen, Eibarren, Donostian, Zarautzen eta Arrasaten. «Zortzi astetan 15.000 pertsona pasatu dira

Ezkerrean, Memoriaren Plazan hainbat mahai-inguru egongo dira. Irudian, Eibarren egindako bat.

Goian, ezkerrean eta behean, hainbat dokumental proiektatuko dituzte egunotan.

Goian, eskuman. Jendeak bere gogoetak idatz ditzake Memoriaren Plazan.

Argazki denak:
© GOGORA INSTITUTUA



Egitaraua

Lanegunetan

17:00 *Reconciliación* dokumentalaren emanaldia.

18:00 *El valor de la autocrítica* dokumentalaren proiektzioa.

Aste-akabuan

13:00 *Buscando a Agirre* dokumentalaren emanaldia.

18:00 *Oinatz galduak* dokumentalaren proiektzioa.

Martxoak 13, astelehena

18:00 Erakusketaren irekiera-ekitaldia.

Martxoak 14, martizena

19:00 Jordi Lidónen testigantzen bideo-emanaldia. ETAK Getxon hil zuen azken pertsonaren semea da Lidón.

Martxoak 16, eguna

19:00 Biktimen mahai-inguruak: Karmen Galdeanok, Álex Morenok, Jaione San Sebastiánek eta Pedro Románek parte hartuko dute.

plazatik, eta parte hartu duten guztiek modu oso positiboan baloratu dute ekimena», azaldu du Gogora institutuaren zuzendari Aintzane Ezenarrok. Hala, Memoriaren Plazaren hurrengo geralekua Areetako Xake plaza izango da, martxoaren 13tik 19ra. Bertan, egun horietan guztietan dokumentalak emango dituzte, eta hainbat berbaldi eta mahai-inguru antolatuko dituzte, askotariko indarkeriak jasandako biktimen testigantzak oinarri hartuta. Besteak beste, entzun ahal izango dira Getxoko bost biktimen lekukotasunak: Jordi Lidónena, 2001ean ETAK Getxon hildako José María Lidón epailearen semearena; Karmen Galdeanorena, 1985ean GALEk hildako Xabier Galdeano algortarraren alabarena; Álex Morenoren, ETAREN biktimarena; Jaione San Sebastiánena, legez kanpoko indarkeria polizialaren biktimarena; eta Pedro Románena, ETAREN biktimarena. Horiez guztiez gainera, herritarrek helarazitako testigantzak eta gogoetak ere erakusgai egongo dira. «Bizi esperientziak ikusiko ditugu hemen, inondik inora ez kontakizun politikoak. Indarkeria sufritutako pertsonen kontakutako dute zer sufritu duten eta nola egin behar izan dieten aurre gertatutakoei», azaldu du Ezenarrok.

Getxoko eta inguruko herrietako herritar guztiei begirakoa izango da Memoriaren Plaza. Gainera, udalerriko ikasleentzako beren-beregi antolatutako tailerrak ere egongo dira. Tailerrok 16 eta 18 urte arteko ikasleei zuzendutakoak dira; daborduko, 250 ikaslek baino gehiagok izena eman dutela jakinarazi du Gogora institutuko zuzendariak: «gure helburua da ikastetxe guztietako ikasleak bertara hurbildu ahal izatea». Era beran, Imanol Landa Getxoko alkateak uste du ekimen hori aukera bat dela indarkeriari zilegitasuna kentzeko eta giza eskubideetan oi-

narritutako elkarbizitzaren alde lan egiteko. Gogora institutuaren zuzendariak jakinarazi duenez, proiektu ibiltari horrek lau helburu ditu: memoria jendarteratzea eta partekatzea, guztion artean eraikitako gogoeta sustatzeko; herritarrei beren memoria-lekukotza uzteko gunea eskaintzea; memoriak udalerrietan lantzea, dinamikak sustatzeko iraganari buruzko gogoeta kritikoak sustatze aldera; eta Gogora institutua bera ezagutzera ematea ere bai.

Udal-taldeek gogoetak

José Luis Landa PSE-EEko zinegotziak Memoriaren Plaza babestu du, bere ustez «interesgarria» delako askotariko indarkeriak bizipen pertsonaletatik jorratzea: «Indarkeria eragin duen erakundea edo

Memoriaren Plazak bizipen pertsonaletatik jorratzen ditu askotariko indarkeriak, «kontakizun politiko» barik

taldea alde batera utzita, ekimen honetan azpimarratzen dena da biktimek pairatu duten sufrimendua, euren ideologia kontuan hartu barik». Santiago Sainz Ciudadanoseko bozeramaileak ere ontzat hartu du proiektua, «indarkeriari zilegitasuna kentzeko» baliagarria delako eta oinarritzako eskubideak «balioesten» dituelako. Gainera, azpimarratu du ekimen hori udalerrian antolatzen diren beste batzuen osagarria dela, adibidetzat ipini ditu frankismoaren, 1936ko gerraren eta terrorismoaren biktimak oroitze-ko ekitaldiak. EAJk adierazi duenez, «desberdinen

arteko elkarbizitzaren zein bakearen eta bizikidetzaren alde» lan egiteko konpromisoa dute, «biktimen ezagutza, errekonozimendua eta memoria» oinarritzat hartuz. Hala, indarkeriari zilegitasuna kentzeko lanean jarraituko dutela ziurtatu dute, baita giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitzaren alde lan egiteko apustua egin ere. PPkoek, berriz, biktima guztien mina aitortzeaz gainera, terrorismoaren biktimak bereizi dituzte, «ahaztuta daudenak direlako». «Eurentzako duintasuna, memoria eta justizia erreklamatzeko segituko dugu», gaineratu dute. EH Bilduk «biktimen, oroimenaren eta erreparazioaren arloan adostasunera heltzeko ahalegintzeko» presasuna baieztatu du, eta Gogora institutuak egindako lana aitortu. Euskal Herriak urte luzeetako gatazka bizi izan ditu, eta asko izan dira gatazka horien biktimak; horiek guztiek «aitortza, erreparazioa eta justizia» merezi dutela azpimarratu du koalizio aberzaleak, «salbuespenik gabe». Hori dela eta, Memoriaren Plazan omenduko diren biktimen katalogoan Eustakio Mendizabal *Txikiaren* memoria «alboratzen» dabilzala deitoratu du EH Bilduk: «EAJren ustez *Txikiak* ez du errekonozimendua, memoria eta justizia merezi, Polizia frankistak Algortako kaleetan tiroz hil zuen arren. Epaitua izan aurretik hil zuten, bere burua defendatzeko aukerarik izan gabe». Horri erantzunez, Ezenarrok argi utzi gura izan du Gogora institutuak ez duela «inor» baztertzen. «Legeak onartzen dituen biktima guztiak oroitzen ditu Memoriaren Plazak, adituez osatutako batzorde batek aintzat hartzen dituenak, alegia». Jakinarazi du *Txikiaren* familiako «inork» ez diola kasua modu ofizialean batzordeari aurkeztu, «hortaz, ezinezkoa da legalki bere kasua onartzea». ◀

Sukaldean

Etxeko garagardo bakoitzari ondo dagokion pintxo bana

**OSAGIAIK:**

Banana, irina, arrautza, almendrazko krokantea, toffe saltsa eta berakatz kimuak.

PORTU ZAHARRA TABERNA

Portu Zaharra 35, Algorta (Getxo)
Tel.: 944 602 033
Izen-ematea: portuzaharra@portuzaharra.com

Urdulizko larreetatik itsasora egingo dugu salto oraingoan, Algortako Portu Zaharreraino, hain zuzen ere. Izan ere, portura jaisteko dau den eskaileretan dagoen Portu Zaharra tabernak eskaintza bereziak dakartzkigu egunotan. Hilaren 10ean, barikuan, bertan aurkeztuko dute Boga garagardotegiaren proposamen berria: Stout garagardo beltza. Aurkezpen-ekitaldian, kañero berezi bat ipiniko dute garagardo mota hori dastatu ahal izateko, iluntzeko 08:00etatik aurrera. Horrez gainera, bertaratuko direnek pintxo berezi batez gozatu ahal izango dute, dastaketa egun horretarako beren-beregi sortutakoa. Frijitutako banana izango da, toffe karameluz bustita eta almendrazko krokanteagaz estalita; egun-

doko aukera, garagardoaren ñabardura gozoakaz sano ondo bat egiten duelako. Hurrengo barikuan, San Patrizio Eguna dela eta, etxean egindako garagardo dastaketa-tailerra egingo dute, 20:00etatik aurrera. Arduradunek jakinarazi dutenez, 15 lagunentzako saioa izango da; horrenbestez, alde aurretik izena ematea beharrezkoa da, hilaren 15a baino lehen. Egun horretan, sektorean bereizgarriak diren produktuak eskainiko dituzte; eta pintxo bereziak ere prestatuko dituzte bertako sukaldariak, garagardo bakoitzeko bana. Ostean, parte-hartzaileek mokadu horietatik gustukoenei botoa eman ahal izango diete, eta boto gehien jasotzen dituzten pintxo biak ohiko eskaintzan sartuko dituztela iragarri dute arduradunek. ◀

faceguk

Hazte Oir-en autobusari, zer?

JOSU URRUTIA URRUTIA

ALGORTA



Oso txarto iruditzen zait autobus hori Getxotik pasatzea. XXI. mendean gaude daborduko eta horrelako kanpainak egotearen aurka nago; txarto irizten diot.

JANIRE SÁNCHEZ HERNÁNDEZ

ALGORTA



Telebistan ikusi dut autobusa eta ez zait gustatzen, pertsonen sentimenduak min ditzakeelako. Uste dut Udalak zerbait egin behar dela hemendik pasa ez dadin.

JESUS MARÍA LATXIONDO AREIZAGA

ALGORTA



Ondo iruditzen zait autobus hori udalerritik pasatzea, kontuak diren moduan azaldu beharra dagoelako, ahal den modu naturalean. Ondo deritzot.

GARAZI BASTERRETxea BAREA

ITZUBALTZETA/ROMO



Edozein pertsonak erabaki dezake zer gura duen izan; inork ez dio ezer esan behar. Uste dut autobus hori irain bat dela beste modu batez sentitzen diren umeentzat.

JOSU LARRAÑAGA ARRIETA

ALGORTA



Autobus horrenak ez du inolako zentzurik. Halako kontuak gairiduta egon beharko liriteke; gainera, iraingarria ere bada. Umeen esku-bideak dira lehenetsi beharrekoak.

Dastaketa fitxa**GARAGARDOA:** Boga Stout.**GARAGARDOTEGIA:** Boga euskal garagardo kooperatiba.**OSAGIAIK:** Cascade eta Kent Gorlins lupuluak eta Pale Ale, Crystal, Caragold, Txokolata, Brown eta Oloa garagar maltak eta legamia.**DASTAKETA:** Kolore beltza, testura suabea eta apar ugari. Kiskalitako malta, kafea, txokolata eta banillazko usain indartsua. Garagar txigortuagaz, txokolata eta karamelu ukitez beteriko zapore goxoa. Amaiera luzea eta mikatzasun ertain lehorra. Alk %6,3

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua